

hh
hik hasi

173



GAIA: ESPAZIOAREN ANTOLAKETA • ELKARRIZKETA: FRANCESCO TONUCCI •
PARTAIDETZA (III) • EKARPENAK: KALITATE-EGITASMO INTEGRATUA •
• GALDEIDAZUE: VICTOR PASTOR • SANTXOTENA MUSEOAK • RUBEN SANCHEZ

2 urtetik
aurrera



Gaur, bainurik ez!



Non da Mimiki?



Txakur bat
nahi dut!



Esanatu, amaboi!
Zatoz jolastera!

MIKO

4 urtetik
aurrera

IPUIN
BILDUMA



Ipuin goxoak

ALBUM
ILUSTRATUAK.



Iratxoaren
Txanoa



Maite nauzu oraindik?


MARRAZKIAK
OSATZEKO ETA
MARGOTZEKO
LIBURUA



Zirrimarrak

9 urtetik
aurrera

EZAGUTZA
LIBURUAK



Egipto



Mendebaldearen
konkista

aurkibidea



10
gaia

ESPAZIOAREN ANTOLAKETA ETA DISEINUA

Haur Hezkuntzako gelen antolaketa espazialari eta erabilerari buruzko tesia egin du Lorea Jauregi irakasleak. Espazioari buruzko hausnarketa proposamen ugari bildu ditu, haurren garapenean, autonomian eta heziketa prozesuan laguntzeko.



16
elkarrizketa

FRANCESCO TONUCCI

Haurrek hiriarekin duten harremanaz hitz egin dugu psikopedagogo eta pentsalari italiarrari egindako elkarrizketaren bigarren zatian. Haurren Hiria egitasmoaren ardatz nagusiak eta bilakaera ere azaldu dizkigu Tonuccik.

5 editoriala

6 hizpide izan da

8 hizpide izango da

10 gaia

HAUR ESKOLETAKO ESPAZIOA. Antolaketa eta diseinua

16 elkarrizketa

FRANCESCO TONUCCI “FRATO” psikopedagogo

23 PARTAIDETZA (III)

30 esperientziak

KALITATE-EGITASMO INTEGRATUA. Txioka Haur Ikastola

36 galdeidazue

Nola egin ebaluazio formatiboa eta konpartitua Gorputz-Hezkuntzan? Victor Pastor

40 nora joango gara?

Santxotena Tailer-Museoa eta Parke-Museoa

42 Atzeko atetik

Ruben Sanchez. Bertsolaria

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostizu eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urroza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Arantxa Goiburua. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Argazki Press. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2012-11-15). Kopurua: 3.500 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

www.hikhasi.com

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Opari ezazu etxerako heziketa aldizkaria.

Urteko harpidetza **20 euro** (4 ale)

ETXERAKO HEZIKETA ALDIZKARIA 2. ZENBAKIA

Hazi Hezi



www.hikhasi.com

* hik hasi, Berria eta Irria-ren harpidedunek beherapena izango dute.

editoriala

abendua

Koherentziak eta inkoherentziak



Hezkuntza inbertsio gisa balioestea. Hitzetatik haratago, ideia hori gorpuztea eta praktikan jartzea. Europako hainbat lurralderen ildoari jarraituta, BPG igo egin beharko litzateke.

Koherentzia eta inkoherentzia. Bi hitz horiek defini dezakete Isabel Zela Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saiburuaren agintaldia.

Koherentzia izan du bere alderdiaren printzipioekin: hizkuntzen trataeran, curriculumean, bakegintzan, estatuaren ikuskeran, eta abarrea. Bestalde, etengabeko inkoherentzia izan du plazaratutako hitzen eta egindakoen artean.

Inkoherentzien artean, norik ez du Zela entzun esaten “hezkuntza garrantzitsua da: ez da gastua, inbertsioa baizik”. Eta, bere agintaldian, hezkuntzara bideraturikoa Barne Produktu Gordinaren %4,1etik %3,8ra jaitsi du; Europako batez bestekoa %6an dabilenean. Edo, “guk ez ditugu PPren hezkuntza murrizketak aplikatzen”, esan du; eskoletan, etengabe murrizketak jasaten aritu direnean. Edo, “hezkuntza eragile guztiak kontuan hartzen ditugu” adierazi, eta, gehiengo sindikalarekin adostu gabe (LAB, ELA eta EILAS), %27 soilik ordezkatzen duten CCOO eta UGT sindikatuekin lan hitzarmena izenpetu. Hala nola, denontza-

ko egokia izango den “Bakerako Hezkuntza Plana egingo dugu” esan, eta, PPekin adostutako alde bateko plana martxan jarri nahi izan. Azkenean, planaren harrera hotzak norabidea aldatzera behartu du. “Doktrinatzaren ari zarete” esan zien besteiei, eta Zela bera izan da bere ideologiaren doktrinatzailerik.

Baina, lehen aipatu bezala, izan du koherentzia PSE-EE bere alderdiarekin. Kataluniako edota Galiziako alderdi sozialistek ez bezala, hemengo sozialistek ez dute bertako hizkuntza, euskara, irakas hizkuntza gisa jarri; alderantziz baizik, “hiru eleko ereduak”-rekin, parez pare jarri dute euskara, gaztelania eta ingelesa. Eta, egindako *Ebaluazio Diagnostiko*etan argi agertzen da, euskarak behar duela laguntza handiena, haren egoera normalizatu nahi bada. Sailburuak, ordea, ez dio inolako arretarik jarri emaitza horri.

Bestalde, *Euskal Herria* kontzeptua nola erabili behar den agindu die irakasleei, Nafarroan bezala, testuliburuak kontrolatu nahi izan ditu, bere gustuko edukia zabaltzen ez dutenak ia itotzen utziz.

Azken agintaldian egin dena ikusita, zer proposa genezake aurrera begira?

Herri gisa pentsatuta, gure hezkuntzaren ildo nagusiak zirriborrazera ausartuko gara:

- Hezkuntza inbertsio gisa balioestea. Hitzetatik haratago, ideia hori gorpuztea eta praktikan jartzea. Europako hainbat lurralderen ildoari jarraituta, BPGtik hezkuntzara bideratu beharreko diru kopurua igo egin beharko litzateke.

- Hezkuntza demokratizatzea oinarri on bat litzateke. Eragileekin hitz egin, beharrak aztertu eta lehentasunak adostu. Posible den neurrian, gestioa deszentralizatzea; gertuko gestioak, hezkuntzako partaideen parte-hartzeak, emaitzak hobetzen dituela frogatuta baitago.

- Euskararen Kontseiluak egindako “Tkasle euskaldun eleaniztunak sortzen”, edota, antzeko proposamenak, egunero ko praktikan jartzea.


- Eskolarako curriculumak, herritarrak burujabeak izan daitezen egokitzea.

- Hezitzaileen prestakuntza zaintzea eta bitartekoak eskaintzea.

hizpide

Espazioari buruzko jardunaldiak egin ditu hik hasi-k

Oso harrera ona izan zuten hik hasi-k azaroan Durangon eta Donostian antolaturiko 'ESPASIOen antolaketa haurren AUTONOMIA garatzeko' jardunaldiek. Espazioaren diseinu eta antolaketak haurren garapen eta hezkuntza prozesuan duen garrantzia azaldu zuten Joxe Ramon Mauduit psikologoak eta Rosa Vidiella pedagogoak, eta Baztango eta Oiartzungo haur eskoletako bi ordezkariak, Kristina Goñik eta Mari Jose Arozenak hurrenez hurren, euren esperientziaren berri eman zieten jardunaldietan izena emandako Haur Hezkuntzako hezitzaileei.



Nafarroako hezkuntza murrizketen aurka

Nafarroako Administrazioak hezkuntzan ezarritako murrizketak salatzen eta haiek bertan behera uzteko eskatzeko hainbat ekimen egin dituzte azaroan.

D ereduko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako 57 zuzendarik osaturiko NIZE elkarteko ordezkariak Hezkuntza Departamenduaren egoitzara joan ziren azaroaren 6an, eta murrizketa neurriek ikastetxe bakoitzean izan duten eragina zehazten duen txostena aurkeztu zuten, ikasturte osorako programazioarekin batera. Jose Iribas kontseilariaren hitzak gezurtatu zituzten –iaz baino 350 irakasle gutxiago dagoen arren ikasturtea normaltasun osoz hasi zela esan zuen Iribasek– eta murrizketa neurriak “nabarmenak” izateaz gain eskoletan jada eragina izaten ari direla azaldu zuten.

Haiek emandako datuen arabera, batzaz beste bi-lau irakasle galdu dira ikastetxe bakoitzeko, eta ratioaren igoerak (gela bakoitzeko 25etik 27ra igo da ikasle kopurua zentro batzuetan) zein eman beharreko eskola orduen hazkundeak irakasleen lan baldintzen kaskartzea eta estresaren

sintomak azaltzea ekarri dute. Halaber, ordezkariak egiteko kontratuak eten egin dira, besta egunetan oporrak ez ordaintzeko, eta aldiz, ordu batzuetarako kontratuak egiten ari dira, Nafarroako Ikastetxeetako Zuzendarien Elkarteko kideek azaldu zuten bezala. Giza baliabideak ez ezik, baliabide ekonomikoek ere murrizketa izan dute, %20 hain zuzen.

Irakasleak “ahalegin handia” egiten ari dira murrizketak ahalik eta gutxien nabari daitezen, “profesionalak garelako eta gizarteari eskaintza duina egin nahi diogulako”, baina noiz arte eutsi ahal izango dioten ez dakitela adierazi dute NIZE elkarteko zuzendariak. Hori dela eta, gogoeta egiteko eta lehenbailehen murrizketa neurriak bertan behera uzteko eskatu diete Hezkuntza Departamenduko buruei.

NIZEko kideak ez ezik, sindikatuak, guraso elkarteak eta ikasleak ere murrizketen aurka azaldu dira. Azaroaren 24an manifestazioa egin zuten Iruñean, *Stop murrizketak. Stop inposaketak* lelopean. Milaka lagun bildu zituen mobilizazio jendetsuak.

izan da

Familien kuota %5 igo du Haurreskolak Partzuergoak




Haurreskolak Partzuergoak %5,05eko igoera ezarri du familiek ordaindu beharreko kuotan. Ondorioz, haur bako-

tzeko 2.288 ordaindu ordaindu beharko dituzte zortzi ordu arteko egonaldiagatik. STEE-EILAS sindikatuak gaitzetsi du erabakia, Kontsumorako Prezioen Indizea (KPI) gainditzen duelako igoerak, eta ez duelako “kontuan hartzen familiek ordaintzeko izan ditzaketen zailtasunak”. Halaber, aurrerantzean matrikulazioarekin batera, maiatzean, 148 euroko aurrekuota bat ordaindu beharko dute familiek, iraileko kuotari dagokion kontzeptu modura. Sindikatuaren iritziz, “fidantza bat” ezartzea dakar horrek, eta zerbitzu publiko batean tokiz kanpo dagoen erabakia dela salatu du.

Haurreskolak Partzuergoak hartutako beste erabaki baten kontra ere gogor jo du STEE-EILASek. Hainbat arrazoi direla medio haur eskola utzi behar izan duen haurraren senideek egon ez den hilabetei dagokien diru kopurua aldi batean ordaindu beharko du, sei hilabeteren buruan haur eskolara itzuli nahi badu. Sindikatuak “lotsagarria eta zigortzailea” deritza “erabili ez duen zerbitzuagatik ordaindu behar izateari”.

“Dohakoa, unibertsala, kalitatezkoa eta hezitzailea den 0-3 zikloa” aldarrikatzen jarraituko duela adierazi du STEE-EILASek.

hik hasik 18 ikasturte daramatza euskal hezkuntza indartzen eta laguntza eskaintzen



Informa zaituz eta parte hartu **hik hasi** proiektuan harpidetuz www.hikhasi.com

hizpide



‘Euskaraz bizi nahi dut’ manifestazioa egingo da abenduaren 1ean Donostian, Kontseiluak deituta

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak deituta, euskaraz bizitzeko nahia eta eskubidea aldarrikatzeko manifestazioa egingo da abenduaren 1ean, Donostian, *Euskaraz bizi nahi dut* lelopean. Anoeta estadiotik abiatuko da manifestazioa arratsaldeko 17:00etan. Manifestazioaren helburua euskaraz bizitzeko herritarrek duten eskubidea aldarrikatzea izango da, eta bereziki “arduradun politikoei” eskubide horri jaramon egiteko eskatuko diete, aldarria ozen egitea “inoiz baino beharrezkoagoa” dela azpimarratuta.

“Hizkuntza zerbaitetarako bada, harremanetarako, komunikatzeko da. Pertsona desberdinen urteetako harremanak egituratzeko eta batzeko, hizkuntza-komunitate sendo bat eratzeko balio izan du euskarak. Etorkizunean ere, euskara izango bada, komunitate horrek iraun duelako izango da. Guk iraun dugulako izango da”, dio Kontseiluak manifestazioaren deialdiarekin batera osatu duen manifestuak. “Halere, gu izateko jendea behar da, hizkuntza-komunitatea osatu behar da. Ezinbestekoa da euskarak iraun dezakeen komunitate bakarrean, euskara eta hizkuntza-komunitatea indartzea. Eta badakigu hori lortzeko ezinbestekoa dela euskararen berezko lurraldean bizi eta lan egiten dugun guztiok euskara ezagutzea. Ezinbestekoa izateaz gain, eskubidezkoa ere bada. Euskaldunok oztoporik gabe euskaraz lasai jarduteko lekuak behar ditugu. Euskararen eremuak sortu eta hedatu behar dira. Euskaraz biziko badira, euskaraz biziko bagara, euskara biziko bada”, dio Kontseiluak. Kontseiluaren iritziz, “testuinguru ezin aproposagoa” da euskararen normalizazioan behar diren aldaketak emateko. Hainbat sektoretako eragileek eta erakundeek babesa eman diote deialdiari.

Bestalde, azaroaren 29tik abenduaren 3ra bitartean *Euskaraz bizi nahi dut* oihala jartzeko eskatu die Kontseiluak Hego Euskal Herriko udaletako alkateei eta herritarrei.

Saguganbara gunea, Durangoko Azokan


Durangoko 47. Liburu eta Disko Azokak, elkarlanaren bidean urrats berriak emanez, egitarau aberats eta sendoa izango du, berritisunez beterikoa, abenduaren 6tik 9ra bitartean. Haur literaturari eskainitako aretoak Saguganbara izena hartuko du aurtentzen, eta oso egitarau zabala aterpetuko du. Haurrek eta gurasoek elkarrekin gozatzeko lantegiak antolatuko dituzte lau egunetan (horien artean, ijitoen kulturari –Durangoko Azokaren aurtengo gaia da–, komikigintzari, ilustrazioari eta euskarazko jolasen buruzkoak), eta hezitzaile talde bat bertan izango da, literatura eta musikari buruzko aholkuak emateko hala nahi duten gurasoei.

Horrez gain, Mezulari, Erein eta Lanku argitaletxeek liburu berriak aurkeztuko dituzte, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen, Poxpolo ta konpainiak eta Bazen Behin klown taldeak ikuskizun berriak taularatuko dituzte, Maite Francok *Zu eta ni, bi begi niri* bizikidetzarako ipuinak konstatuko ditu, IKAS Euskal Pedagogia Zerbitzuak *Olentzero* eskainiko du, Txatxilipurdi elkarteak *Mundua koloretan* antzerki emanaldia taularatu du, eta Urtxintxa Eskolak *Txantxariak* eta *Titiriteroen ipuinak* tresna hezitzaile berriak aurkeztuko ditu.

izango da



'Ika-mizka. Eta hik? Nola bizi dunk euskara' egitasmoak saioa egingo du Donostian



Gaztezu-aldizkariak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean abiatutako *Ika-mizka. Eta hik? Nola bizi dunk euskara?* egitasmoan parte hartu duten kirolariak, kazetariak, aktoreak, musikariak, idazleak, ber-

tsolariak eta izena eman duten gazteak elkartu egingo dira abenduaren 3an Donostian, Carlos Santamaria Zentroan, euskaraz bizitzeko ahaleginean izandako pozak, oztopoak, aurrerapausoak, jasotako aurpegi txarrak edo txaloak... konpartitzeko, eta posible bada, ondorioak, aterabideak eta konpromisoak ere adostu ditzaten. Jon Artano kazetariak dinamizatuko ditu mahai-inguruak, eta ondoren Zuloak taldeak kontzertua eskainiko du. Jardunaldian parte hartu nahi dutenek izena eman dezateke *Gaztezu- lo-ren* web orrian: www.gaztezu.com/i-kamizka.php.

Balioen hezkuntza bultzatzeko tresna berri bat sortu du Urtxintxak

Bizkaiko Urtxintxa Eskolak balioen hezkuntza sustatzeko 'Titiriteroen ipuinak' liburua kaleratu du. Istorio laburren bidez, elkartasuna, parekidetasuna, hizkuntzaren normalizazioa eta beste hainbat balio sustatu nahi dira. Euskal sortzaileek hartu dute parte bertan: Miren Amuriza, Jasone Osoro, Mireia Delgado, Josu Martinez, Juankar Lopez-Mugartza, Uxue Alberdi, Gotzon Barandiaran eta Pako Aristik.

Haiek idatzitako testuak koloretako marrazkiekin ilustratu ditu Nagore Txintxurretak. Liburuan irakurri ez ezik, CDan ere entzun daitezke ipuinak, eta hezkuntza inklusiboaren aldeko apustua eginez, zeinu hizkuntza erabiltzen duten pertsonak eta ikusmen urritasuna dutenak ere gozatu ahal izango dute, DVD baten eta QR kodeen erabileraren bidez, edota ipuinak .bra formatuan inprimatuz.

Sexologiako Hiztegia aurkeztu du EHUK



Euskal Herriko Unibertsitateak Sexologiako Hiztegia aurkeztu berri du. 1.700 hitzez osatuta dago eta oraingoz sarean soilik kontsultatu dai-

teke. Nerea Sancho hiztegiaren zuzendariak azaldu duenez, helburu bikoitza izan dute. Alde batetik, euskaraz erabiltzen diren terminoen zuzentasuna zehaztea; izan ere, sexologian erabiltzen dituzten termino asko maileguak dira, Sanchok azaldu duenez. Bestetik, ikuspegi sexologikotik egin nahi zuten hiztegia, eta horrek ekarri du hainbat definizio sortu behar izatea, "kontsultatu ditugun hainbat alorretako hiztegiengan oso gutxitan topatu baititugu gure ustez egokiak ziren definizioak".

GAIA

Espazioa, bizi dugunaren markoa

*Haur eskoletako espazioaren antolaketa
eta diseinua*





Filosofiak, Psikologiak, Antropologiak, Arkitekturak... eta Pedagogiak ere aztertu du espazioa. Espazioaren antolaketa eta diseinuak lagundu edo oztopatu egin baitezake haurraren ikasketa prozesua. Lorea Jauregi EHUko irakasleak 'Haur Hezkuntzako gelen antolaketa espaziala eta erabilera' izenburuko tesia egin du, eta bertan, espazioari buruzko hausnarketa proposamen ugari bildu ditu.

G

Espazioa, denborarekin batera, bizi dugun hori zedarritzen duen dimentsio bat da, eta garenean eta egiten dugun guztian eragina dauka. Horregatik, Aristotelesengandik hasi, Einstein eta Kantengandik igaro, eta, gaur arte, espazioa aztergai izan dute Filosofiak, Psikologiak, Antropologiak, Astrologiak, Arkitekturak... eta Pedagogiak. Ezagutza espazialaren eraikuntza-prozesuan, zehazki, autore garrantzitsua da Jean Piaget; haren arabera, espazioaren egituraketa hautemate prozesu baten bitartez eraikitzen da, gizabanako bakoitzaren sentsazioak konektatuz eta antolatuz (bere eguneroko jardueran munduarekin daukan harremanean).

Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eskolako dozentea da Lorea Jauregi, eta urteak daramatza espazioaren gainean hausnartzen, haur eskoletako gelen antolaketa espaziala eta erabilera aztertzen eta ikertzen, zehazki. Izan ere, hainbatek ondozortatu eta Jauregik berak ere jasotzen duen eran, "eskolaren espazioak diseinatu eta antolatzeak garrantzia du irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan; espazioa, aukerak ematen dituen egitura moduan ikus daiteke, eta hezkuntza jardueren moldaera erraztu edo mugatu dezake". Edo, beste hitz batzuetan esanda, espazio egokiak, ondo egokituak eta haurraren premiak errespetatu eta asetzen dituenak, lagundu egingo du umearen garapenean, autonomian eta heziketa prozesuan; aldiz, espazio desegokiak, oztopatu egingo du.

Espazioaren gaira lehen hurbilketa 80ko hamarkadaren hasieran egin zuen Jauregik, eta 2009ko azaroan tesia argitaratu zuen *Haur Hezkuntzako gelen antolaketa espaziala eta erabilera* izenburupean. Tesi horrek, espazioari buruzko hurbilketa kontzeptual mardula egiteaz gain, eskola barruko nahiz kanpoko espazioen diseinu eta antolaketari buruzko hausnarketa eta proposamen ugari jartzen ditu mahai gainean; eskola hirira eta lurraldera hedatzearen premia ere azaltzen du, umeen hezkuntza eta zaintza komunitatearen ardura dela dioen printzipioari eutsiz.

Honela definitzen du Lorea Jauregik bere tesian hurrengo orriotan aztergai izango dugun gaia: "Espazioa bizi dugunaren marko fisikoa da"; sentitu, hunkitu eta adierazten dugunaren marko fisikoa, beraz. Jauregik espazioari buruzko hurbilketa kontzeptuala ikuspegi eraikitzaile edo konstruktibista batetik egiten du, "hau da, subjektuak berak eraikitzen du aktiboki bere espazio psikologikoa". Teoria konstruktibistaren arabera, gizabanakoak osatzen ditu egitura espazialak, "egitura osaketa edo garapena ez da ingurunearen elkarrekintzarekin zerikusi gabe kontuan hartu".

Espazioa "bizia" duen zerbait da Jauregirentzat, "ez materiala bakarrik baizik eta ekintzak eta emozioak garatzen diren toki bezala ulertu". Eta, era berean, bizitzeko espazio gisa ulertzen du espazioa. Tesiaren luze zabalean espazioaren diseinu eta antolaketak pertsonaren ongizatean eta garapenean zer nolako garrantzia duen azaltzen du argi eta sakon. Pedro Aierbek zuzenduriko doktore tesi hau, osorik irakur liteke Interneten, www.uztaro.com-en.

Tesian sartu aurretik, eta behin Piaget aipaturik, Haur Hezkuntzako eskoletako espazioei garrantzia ematen hasi zitzaion autore bat ekarri nahi izan du HIK HASiren orriotara Jauregik. Ia bi mende eta erdi atzera egin behar da Friedrich Fröbel pedagogo alemaniarren garaira iristeko. Fröbelek haur eskoletako eraikinen eraikuntzek behar zituzten baldintzak ezarri zituen: espazio ireki eta dinamikoa, eta malgutasuna eskaintzen dituen eskola eredu onesten zuen. Haren ereduari esker aurrerapauso handiak eman ziren arren, oraindik asko dago egiteke, Jauregiren hitzetan: "Bi mende pasa dira eta hemen oraindik arkitekturaren planifikazioa maila kuantitatiboan oinarritzen da, eta ez maila kualitatiboan".

Fröbelek hiru espazio mota bereizten zituen:

- espazio irekiak (eta horietan lorategi handi bat egon beharko litzateke)
- espazio itxiak (eskolako eraikina bera)
- trantsizioko espazioak (patio estalia eta irekia).

Proposamen didaktikoen arabera antolaketara espaziala

Tesira etorririk, gaiaren interes zientifikoa, didaktikoa eta interes pertsonal eta profesionala batzen dira Lorea Jauregiren ikerketan. Profesionalki, 1980-1981 ikasturtean, Gipuzkoako ikastetxeetako D ereduko koordinazio lanetan ibili zenean eskolekin eskualdeka egiten zituzten bileretan, espazioaren antolaketari buruzko kezka mahai gainean zeuden dagoeneko. Ondoren, 1985etik 1988ra, praktikatik ikusi zuen espazioaren antolaketak ahalbidetu edo oztopatu egin ditzakeela umearen hainbat behar. 1988tik aurrera, Donostiako irakasle eskolan maisu-maistragaiei transmititu die espazioaren antolaketaren garrantzia.

Tesiak bi ikastetxeetako espazioen egitura, antolaketa eta erabileraren behaketa, azterketa eta ondorioak azaltzen ditu bi faseetan (2002an eta 2007an). Donostiako Martutene auzoko Arantzazuko Ama ikastolan eta Altza auzoko Harri Berri-Oletako ikastetxean egin du behaketa, eta lagina Haur Hezkuntzako 2 eta 3 urteko haurrak izan dira. Bi ikastetxe horietako esperientziak, gainera, Reggio Emiliako Haur Hezkuntzako Udal Eskoletako esperientziarekin kontrastatu ditu, Italiako iparraldeko hirian egonaldia egin baitzuen irakasleak.

Behaturiko ikastetxeek, bakoitzaren proposamen didaktikoaren arabera, espazioa eredu desberdinen arabera antolatzen dute. Honako hauek dira tesian sakon aztertzen diren ereduak.

High Scope eredu

High Scope ereduarekin lotzen du Harri Berrikoa: gela bakoitza irakaskuntza eremuetan antolatua dago, txokotan edo taile-



Indarkeria oso gertutik bizi duten

rretan; gela bakoitzean etxea, antzerkia, plastika, jolasen txokoa... daukate, eta eredu honen arabera, umeek giro estimulatzailer baina, aldi berean, antolatuan hobeto ikas dezaketela ulertzen da. “Espazio antolatu hauetan umearen protagonismo eta ekimenak du garrantzia”, azaldu du Jauregik, “eta heldua arazoaren konponketara bideratuak dauden jardueren bultzatzaile izango da”.

Frabboniren eredu

Arantzazuko Ama ikastolako eredu, aldiz, Franco Frabboniren ereduarekin lotzen du tesiaren egileak. “Hor berezitasuna da ikastetxeko gela bakoitza bihurtzen dela plastika gela, matematika gela, ipuinen gela... eta adin desberdinetako talde eta umeak joango dira getetatik pasatzen, beraiek

aukeratzen dutenean”. Frabboniren ereduak ingurunean erabat sustraituta ikusten du eskola. Ikastetxeko gela bakoitza “Plastika”, “Matematika”, “Ipuinak”... bihurtzen da eta adin desberdinetako talde edo umeak gela horietatik pasatzen joaten dira. Zona desberdinak proiektu kurrikular integratu batean biltzea da helburua.

Reggio Emiliako Haur Hezkuntzako Udal Eskolak

Reggio Emiliako udal haur eskoletako ereduak komunitate osoa barne hartzen du. Oro har, Reggioko ikastetxeetatik kontuan izateko hiru ideia nabarmentzen ditu Jauregik. Batetik, espazioa garrantzitsua da hezkuntza proiektuaren elementutzat, eta espazioek elkarriketa sortu behar dute. “In-

dibiduaiki egoteko, gauzak barneratzeko eta gogoeta egiteko espazioak behar dira eskoletan, eta baita komunikatzeko ere”.

Reggio Emilian hirira eta lurraldera hedatua dago espazioa, eskola hiriarekin osmosian dagoela ulertzen baitute. “Horrek gauza garrantzitsuak dakartza berarekin: umeen hezkuntza eta zaintza komunitatearen ardurara delako ulertzen da, eta umeei eskainitako azpiegiturak guztiak hiri proiektuan integratuta egon behar dute. Hiriaren erdigunea hartzen dute haurtzarorekin zerikusia duten erakundeek, biztanleek umearen eta irakaslearen bizitza ondo ikusteko moduan, komunitateko erreferentzia izan dadin”. Erdigunean egoteak, ikusgarri eta ezagun izateak prestigioa dakarkio eskolari eta irakasleari, “eta asko motibatzen du, eta laguntzen du lehen aipatu dugun mesfidantza uxatzen”. Halaber, espazioaren diseinu eta antolaketa lanetan, pedagogoen, maisu-maistrek eta familiek arkitekto eta diseinatzaileekin batera egiten dute lan, eta “esperientzia sensorial aberatsak eskainiko dituzten espazioak eraikitzen dituzte”.

Reggio hirugarren elementu azpimarragarriak kulturari egiten dio erreferentzia, espazioa kultura orokor eta zehatz baten isla dela ulertzen baitute. Azken batean,



“Reggio espazioa erlazioaren pedagogiarekin lotzen da, komunikaziozko harremanak sortzearekin. Loris Malaguzzi esaten zuen umearen 100 hizkuntzak kontuan hartuz eraiki behar direla espazioak elkarrekin”.

Horrez gain, Reggio Emiliako ikastetxeetan esperientzia errealei ematen zaien garrantzia nabarmentzen du Jauregik: “Gauza errealetan oinarritzen dira. Gauza errealak egiten badira, ondorioak ere errealak izango dira; beraz, ideiak gertaera eta esperientzia errealetatik sortzen dira”.



Eskolako espazioek errespetatu eta ase beharko lituzketen premiak

Hemengo ikastetxeetan eta Reggio egindako behaketa eta ikerketaren ondoren, Lorea Jauregik dio espazioak —eta materialak eta hauekiko elkarrekintzak— haurraren ikasketa prozesua lagundu eta ahalbidetu dezan, haurraren denbora eta erritmo biosikologikoak errespetatu behar dituela. “Ikasleen beharrei egokitutako eskolak behar dira”. Haurraren premia horiek zerrendatzen hasita, ondoko behar hauek, “oso oinarrizko beharrak”, aipatu ditu Jauregik ezinbestean errespetatu beharrekoak:

- behar fisiologikoak: elikadurarekin, atsedinarekin eta higienarekin loturiko premiak
 - behar afektiboak
 - mugimenduaren beharra
 - jolasteko beharra eta ondo pasatzeko beharra: jolasa izango da ikasketa prozesuaren oinarri
 - sozializatzeko beharra
 - autonomiaren beharra
 - komunikatzeko beharra eta adierazteko beharra
 - aurkikuntza eta esplorazioaren beharra
 - espazioan sentitzeko eta norbera eza-gutzeko beharra
 - manipulatzeko beharra, sortzeko eta irudimenerako beharra
- ...

Haurraren behar horiek norbere eritmoan errespetatzeko aukera ematen duten espazioak eraiki beharko lirake eta, horretarako, eskola “espazio erreztatzaile moduan” ulertzea litzateke abiapuntuetako bat, eta behin behineko antolaketa baten kontzientzia proposatzen du, geletako

elementuak ez izatea behin betikoak, baizik eta haurren premien arabera aldatu edo moldatu litezkeen materialak erabiltzea.

Antolaketa egokiena talde txikietako jardueretan izango litzateke, Jauregiren aburuz, eta eraikina neurri txikikoa eta ahalik eta gertukoena izatea lagungarria da horretan. “Ahalik eta eskola familiarrenak izateak eta arkitekturaren aldetik ezaugarri soziokulturaleri eta ingurumenari ahalik eta egokituena egoteak lagunduko luke haurren ongizatean”. Haatik, etxebizitzak diseinatzerakoan erosotasunarekin eta antolaketa-rekin lotutako alorretan asko aurreratu den arren, pentsamolde horrek eskoletako gela diseinuan ez duela islarik izan ikusten du.

Bereziki, proiektu pedagogiko zehatz bati erantzuna emateko aukera jasotzen duten espazioak balioesten ditu irakasleak, eta espazioaren diseinu eta antolaketa zer baldintza eduki behar dituen kontuan galdetuz, honako baldintza hauek aipatu ditu:

- haurraren beharrak jasotzea: hala fisiologikoak nola sormen, autonomia, komunikazio eta ikerketarekin loturikoak (lehen aipatuak)
- naturarekin harreman zuzena izateko aukera jasotzea
- erabiltzaileen osasuna eta erosotasuna bermatzea, hau da, altzari eta ekipamenduaren ergonomiari kasu egitea, eta aulki eta mahaien tamaina eta altuerak kontuan izatea kalte fisikorik eragin ez dezaten
- inguru baldintzak zaintzea: argiztapena, kolorea, faktore termikoak, akustikoak...
- espazio polisentsoriala osatzeko beharri erantzutea, beti ere zentzumen guztiak gizabanakotik gizabanakora aldatu egiten direla kontuan hartuz.

Kanpo espazioen garrantzia: eskola ez da hormen barruan gelditzen

Lorea Jauregiren tesia, alabaina, ez da eskola barruko espazioetara mugatzen. Iza-



era naturalista eta espazio irekiak nagusi izango dituen eskola lehenesten du ikerlariak, eta, kanpoko espazioez gain, tarteko espazioei garrantzia handia ematen die: ondo estalitako patioak eta lorategiak edo negutegiak aipatzen ditu, besteak beste. “Ume txikiak eguraldi txarrarekin ezin dira atera kalera, eta hemen ikaragarritzko lana dauka-gu tarteko espazioak sortzeko: neguko lorategiak, baratza eta patio irekiak eraikitzen eta ondo hornitzen eta estaltzen, arriskuak ekiditeko”.

Europako iparraldean nola ekialdean, Euskal Herrian baino baldintza klimatiko gogorragoak dituzten lekuetan kanpoko espazioetan orduak ematen dituzte umeek eskola-garaian. Hemen, ordea, ez dago eskolatik ateratzeko tradizioirik; Jauregiren aburuz, espazio eta arkitektura baldintzak egokitu egin beharko lirateke haurrek kanpoan jolas egin dezaten, eta, era berean, irakasleen baldintzak hobetu beharko lirateke horretarako: “Irakasle eta laguntzaile gehiago beharko lirateke; gurasoen eta auzotarren laguntzarekin eskolak kanpora atera behar du, eta umeak ingurunearekin askoz harreman estuagoak eraiki beharko lituzke. Ateratzea eguneroko jardueraz itzera pasa beharko litzateke, eta inguruan ditugun kale, parke eta instalazioek umeen presentzia eta jardurekin indarra hartzen joan beharko lukete”.

Gaur egun, oraindik, ikastetxe askorentzat zaila da haurrekin kanpora ateratzea, arriskuak, oztopoak eta beldurrak daudelako. “Baliabideak jarri behar dira, baina nahitaezkoa da eskola lau hormen barruan ez gelditzea, ingurunean sustraitzea; bestela, eskolak isolatuta gelditzen dira”. Berritua ere Reggio Emiliako ikastetxeetan ikusita koaren adibidea jarri du Lorea Jauregik: Haur Hezkuntzari prestigio ematetik eta bertan egiten den lan onagizarteari ezagutaraztetik etorriko da eskola kanporatzea eta ingurunearekin harreman zuzenean egotea.

Hezitzaileak eta arkitektoak elkarlanean

Lorea Jauregik egin duen ibilbidean eta tesian jasotzen dituen bi faseetan aurrerapausoak egin direla ikusten du. Espazioaren antolaketa eta diseinuari, eta berau material egokiz hornitzeari gero eta garrantzi handiagoa ematen zaiola baieztatu du urte hauetan guztietan, baina, haatik, oraindik, zenbait kasutan, gutxiengo baldintza batzuk ez direla betetzen iruditen zaiou: geletan arriskuak ekiditeko baliabideak falta dira, adibidez (batzuetan berogailuak ere ez daude babestuta); hesi arkitektoniko garrantzitsuak daude; kasu askotan gelak ez daude ondo islotuak eta zarata handia entzuten da; patio asko ez daude behar bezala estalita; gurasoentzako espazio erosoak falta dira...

Gabezia estrukturaleri soluzioa ematea lehenesten du Jauregik; hainbat eta hainbat kalte fisiko, psikiko eta eskolako errendimenduari lotuta daudenak kontuan hartuz, beharrezko ikusten du eskolako eraikin eta elementuen diseinuari behar duen garrantzia ematea eta Administrazioak eraikin berriak diseinatu, eraiki eta ekipatzerakoan adituen azterketatik jasotako aholkuak eta neurriak aintzat hartzea: “Administrazioa, eskoletako irakasle eta ez irakasleak, gurasoak, udala eta auzoetako erakundeak barne direlarik, gabezia estrukturaleri soluzioa aurkitu behar zaie”. Era horretan, espazioak bermatu beharko lioke umeari bere potentziala, konpetentzia eta ikusmina garatzea eta adieraztea.

Espazio atsegin horiek eraikitze garaian, irakaslearen aburuz, asko lagunduko luke, Reggio eta Euskal Herrian zenbait kasutan egin den bezala, eraikinaren diseinu eta antolaketan pedagogoen, maisu-maistretik eta familiek diseinatzaile eta arkitektoe-



kin lan aritzea; lehenengo bi taldeetakoekin ondo baino hobeto ezagutzen baitituzte haurren premiak, eta besteek, espazioari eta arkitekturari dagozkionak, eta elkar osatuz, arazoak saihestuko lirateke.

Haur Hezkuntzako eskoletako espazioei garrantzia emateko, lehenik eta behin, haurtzaroiari eta Haur Hezkuntzari berari bestelako garrantzi bat ematea beharrezko ikusten du. Ondoko faktore hauek kontuan izateko proposatzen du irakasleak:

-Haurrak, bai bakarrik eta bai besteekin, kide zein helduekin, ikertzeko eta esploratzeko aukera izan behar du eskolan.

-Eskolan egiten diren proiektuen eraikitzaile sentitu behar dira; baina, aldez aurretik, irakaslea bera sentitu behar da proiektu baten eraikitzaile ere.

-Haurrak bere identitatea, sexualitatea, autonomia eta konfiantza sendotzeko aukera izan behar du, bere identitatea eta pribatasuna errespetatuko zaizkiolarik.

-Irakaslea, ume eta gurasoekin duen harremanean lagundua eta integratua sentitu behar da, proiektuen antolaketan eta gauzatzean babestua sentitu behar da, eta bermatu behar zaizkio helduekin, kide eta gurasoekin, elkartzeko premiari erantzungo dioten espazio egoki eta ongi dekoratuak.

francesco tonucci



ELKARRIZKETA

Psikopedagogo, pentsalaria eta marrazkilaria

“Bizitzaren formaziorako funtsezkoak diren esperientziak desagertzen ari dira haurren bizipenetatik”

Francesco Tonucciri egindako elkarrizketaren bigarren zatian, haurren eta hiriaren arteko harremana izan dugu hizpide Haurren Hiria egitasmoaren sortzailearekin. Izan ere, hiri modernoetan haurren autonomia bermatzeko eta haien parte-hartzea sustatzeko esperientziak landu ditu Tonucciri azken hogeitun urtean. Haurren Hiria egitasmoaren izaera “politikoa” nabarmendu du psikopedagogo italiarrak, “haurren iritziak entzun egiten dituen helduak demokrazia ariketa handia egiten du”, eta haurrek kaleko espazioa berreskuratzeko beharra aldarrikatu du. “Haurrek kalean dituen hiri, hiri seguruagoa da”.



Haurren Hiria egitasmoa sortu zenuen 1991n. Nolako harremana dute gaur egun haurrek hiriarekin?

Hiri modernoan haurrek ez dira etxetik bakarrik ateratzen, etxean gelditzera behartuta daude, gurasoek beldurra dutelako. Haurren autonomia edo askatasunaren murrizketa ia erabatekoa gertatzen da, eta gurasoei ez zaie axola haurrek ordu asko pasatzen badu pantaila baten aurrean.

Horrek eragin dramatikoak ditu haurtzarora eta gizartean. Etxetik laguntzarik gabe ezin ateratzeko jolasteko ezintasuna dakarkie haurrei; hau esaten dudanean gurasoek kontra egiten didate, umeak lehen baino askoz gehiago jolasten direla argudiatzen dute, jostailu ugari dituztelako eta parkera laguntzen dietelako... Baina hain zuzen, “jolatu” aditza ezin da “lagundu” aditzarekin jokatu, “utzi” aditzarekin baizik. Jolasten utzi behar zaie umei. Honekin ez dut esan nahi gurasoak umeekin jolatu behar ez direnik, alderantziz, oso gomendagarria da, bi aldeek gozatzen badute. Esan nahi dudana da horrek ez duela haurren jolasaren beharra asetzen, umeek euren artean jolatu behar dutelako. Jolasaren oinarriko esperientzia gauzatzeko beharrezkoa da umea etxetik atera ahalizatea gurasoen edo helduen kontrol zuzenik gabe, lagun bat aurkitzea, jolasa erabakitzea eta arauak adostea, jolaserako leku egokia aukeratzeko, nahikoa denbora libre izatea, ahalik eta gehien disfrutatzea eta umeak etxera bueltatzeko gogorik ez sentitzea. Jolasaren bidez izaten dute umeek hazkunderik handiena beren garapenean, alegia, pedagogoen, irakasleen, testu liburuaren, gurasoen kontrol zuzenetik kanpo daudenean.

Gurasoek beldurra dutela diozu. Zeri beldurra?

Beldurrari aurre egiteari. Beldurra, arriskua eta oztopoa osagai ezinbestekoak dira haurren bilakaera neurtzeko, bere buruarekiko zein beste kidearekiko. Ahalmen eta gaitasunen eremurako zein arlo kognitibo eta sozialerako balio du horrek. Biharko helduaren formaziorako, bizitzaren prestakuntzarako hain funtsezkoak diren esperientzia horiek guztiak desagertzen ari dira gure haurren bizipenetatik, beldurraren eraginez. Haurrek une oro daude helduek lagunduta: gurasoak, irakasleak, kirol entrenatzaileak, liburuazainak, ludotekako zainatzaileak, umezainak... txandakatzen dira egunean zehar. Ondorioz, arriskua umearen bizitzatik desagertu da. Baina arriskuari eta oztopoari aurre egiteko esperientzia ezagutzen ez duen umeak ezinezko duen hori esperimentatzeko desioa eta beharra pilatzen du bere baitan; desio pilaketa hori obsesibo bilakatu eta nerabezaroan lehertu ohi da.

Beldur eta kontrol zorrotz horiek direla medio, oso esperientzia arraroa eskaintzen ari gatzazkie gure umei, eta hazten direnean are gehiago sufritzeko oinarria jartzen ari gara. Beraz, beldurra sentitzekotan, hobe dugu umeak txikiak direlarik sentitzea, txikiak beren burua zaintzen badakite-eta. Haurrek arriskua bilatzen du, ezinbesteko osagaia delako euren plazera, satisfakzioa eta bere burua neurtzeko beharra asetzeko.

Haurren autonomia falta horrek badu eskolan eraginik?

Pobretu egiten du, eskolari egin behar lizkiokeen ekarpenak izatea eragozten baitio haurrei. Ondorioz, zorritzarekin, testu liburu eta ohiko programetara itzultzea beste erremediorik ez du eskolak. Italian ezagutzen ari gara hori, 60-70eko hamarkadetan proposatu eta bizitako guztia desagertzen ari da, beti ere beldurraren eta haurrek proposamen propioak egiteko ezintasunaren aitzakian.

Eta hiriaren eremuan?

Haurrek kalean ez egoteak hiriari ere eragiten dio, haurrek gabeko hiri bat beti delako okerragoa. Haurrek gabeko hiriak bazter utzitako hiriak dakar, eta bazter utzitako

“ Une oro helduek lagunduta daude gaur egungo haurrak. Arriskua desagertu da haien bizitzetatik

”

“ Haurren Hiria aplikatu den tokietan segurtasuna handiagoa da. Haurrik gabeko kalea arriskutsuagoa da

”

hiria arriskutsua da. Hortxe dago paradoxa: ez diegu haurrei kalera ateratzen uzten uste dugulako kalea arriskutsua dela, eta egiaz, kalea arriskutsua da haurrik ez dagoelako.

Haurren Hiria egitasmoan autonomia esperientziak proposatzen ari gara, haurrak eskolara bakarrik joatea adibidez; proposamen horiek haurrak urrunetik kontrolatzea behartzen dituzte helduak, kalean haurrak daudela konturatu daitezten. Garai batean normala zen bizilagunak kalean gertatzen zenaz arduratzea, hiri segurtasunaren osagai bat zen. Izan ere, gaizkileek jenderik gabeko giro ilunak, zikinak, zaindugabeak behar izaten dituzte. Aldiz, giro komunitario eta parte-hartzaile batek uxatu egiten ditu. Haurren Hiria egitasmoko esperientzia aplikatu den tokietan, segurtasun maila nabarmen handiagoa da.

Autonomia da Haurren Hiria egitasmoaren ardatzetako bat, hain zuzen.

Haurrek beti izan dute autonomia, baina gaur egun nabarmen desagertu da. Badira horri buruzko ikerketak. Mayer Hillman ingelesak 1970an egin zuen etxea eta eskolaren arteko mugimendu autonomia neurtzeko lehen inkesta, Ingalaterrako 6 eta 11 urteko haurren artean. Emaitzen arabera, haurren %90 joaten ziren eskolara bakarrik. 1990ean, portzentziak %10era egin zuen behera. 2010ean beste herrialde batzuek ere hartu zuten parte ikerketan, besteak beste Italiak. Italian, %6 joaten dira etxetik eskolara bakarrik. Horrek esan nahi du lehen hiru urteetan %0 dela eta hurrengo bi urteetan ez dela %20tik gorakoa.

Hirien eta herrien artean alderik ez dago?

Ez, Italian bederen. Gainera, gaur egun herritarren gehiengo nagusia hirietan bizi da, eta hirietan gertatzen dena herrietara zabaltzen ari da.

Haurren parte-hartzea sustatzea da beste ardatza.

Parte-hartzea, autonomia ez bezala, ez da sekula haurren esparrua izan. Pentsa, emakumei duela 60 urte baino gutxiago aitortu zitzaizen parte-hartze politikorako eskubidea Italian eta Espainian. Beraz, ino-

ri ez zaio bururatzen haurrek parte har dezaketarik hiriaren edo eskolaren gobernatzean. Baina zientziak esaten digu haurra badela horretarako gai, parte har dezakeela eta merezi duela parte-hartzean inbolukratzea. Baduelako zeresana. Ez dira etorkizuneari hiritarrak izateko preparatzen ari, hiritarrak dira jada, eta pisua dute.

Haurren parte-hartzea auzi juridikoa ere bada. Nazio Batuen Erakundeak Haurraren Eskubideei buruzko Hitzarmena onartu zuen 1989an. Herrialde guztiek babestu zuten, Somaliak eta Ameriketako Estatu Batuek izan ezik. Giza Eskubideen Deklarazioak baino babes handiagoa jaso zuen, baina hala ere, oraindik guztiz ezezaguna da.

Honi buruz, Haurraren Eskubideei buruzko Hitzarmenak 12. artikuluan esaten duena oso argia da: haurrek beren iritzia adierazteko eskubidea dute eragiten dieten erabakiak hartzen diren bakoitzean, eta iritzia hori kontuan hartu behar da. Irakurri nuenean, ezin nuen sinetsi. Horrek esan nahi duelako mundu osoko helduek, NBERena bezalako egoitza ospetsu batean, onartu zutela ez dutela berriz haurrei eragiten dien erabaki bat hartuko haiei iritzia eskatu gabe. Promesa faltsua gertatu da, inoiz ez erabaki ezer egin.

Italian gurasoen banantze kasuetan bakarrik onartzen da haurrek iritzia emateko eskubidea. Baina 12. artikulua balio beharko luke familian bertan aplikatzeko. Gurasoek jakin beharko lukete umeei euren iritzia azaltzeko eskubidea dutela eragiten dieten erabakiak hartzen direnean: etxetik aldeatzea, banantzea, seme-alaba gehiago edo ez edukitzea...

Eskolan gauza bera izan beharko luke, baina nik dakidala, ez dute ikasleei galdetzeko ohiturarik. Horregatik, eskoletan ikasle batzordeak osatzeko proposamena lantzen ari gara aspalditik: euren artean eta heldu batekin eztabaidatzen dute, eta noizean behin eskolako zuzendariarekin ere, eskolari buruz pentsatzen dutena esateko eta eskolak hobeto funtzionatzeko proposamenak egin ditzaten, mugarik gabe. Batzuk asaldatzen dira ideia horrekin, baina zergatik ezin dute haurrek didaktikaz hitz egin? Guk ez dugu ikasleek nahi edo eskatzen dutenaren arabera eskola bat egitea proposatzen,

guk esaten dugu ezinezkoa dela eskola bat egitea ikasleen iritzia ezagutu gabe. Eskolak interes handiagoa erakutsi beharko luke ikasleak proiektuaren parte senti daitezen, haien atxikimendua bereganatzen.


Zuen esperientzietan zer harrera jaso duzue gurasoen aldetik?

Hiriko Haurren Kontseiluen esperientzian oso interesatuta daude gurasoak. Haurrentzat pribilegio bat da, beren alkatearekin eztabaidatu dezaketelako, proposamenak egin ditzakete, entzuten zaiela sentitu dezakete... Aldiz, autonomiaren proposamena, eskolara bakarrik joatearena, ez zaie batere gustatzen gurasoei, arazoa sortzen die hasieran. Baina ikusten dutenean euren umeak gai direla eskolara bakarrik joateko eta imajinatu ezin zuten modu batean jokatzeko dutela, xarmaturik gelditzen dira. Gaur egun guraso askok pena ematen didate, uste dute beren umea tuntu dela, ezgai. Ero bati begiratzen zaion moduan begiratzen didate galdetzen diedanean zergatik ez den beren haurra eskolara bakarrik joaten.

Azaldu ahal diguzu zertan datza Hiriko Haurren Kontseilua zehazki?

Hiriko Haurren Kontseilua 1992an sortu genuen, baina aurrekaria Frantzian eta 70eko hamarkadan aurkitu behar dugu. Haurrek organismo demokratiko baten funtzionamendua ikas zezaten egindako heziketa proposamena izan zen, eta roljoko baten antzera planteatua zegoen: haurrek alkatearen edota zinegotziaren rola jokatzen zuten... Helduen esperientzia imitatzen zuen: alderdiak, programak, hauteskundeak, alkatearen izendapena... Guk horrekin hautsi genuen, ez zelako haurrentzako heziketa proposamen bat, ezta hiriarrentzat proposamen politiko bat ere. Gure iritziz, alkateari oposizioa egiteko lan taldeko esperientzia izan behar zuen, eta haurren ikuspegia ezagutzetik irakaspena jaso behar zuen alkateak.

Bi esperientzia horiek bereizteko, proposamen batzuk egin ditugu. Lehenik eta behin, Lehen Hezkuntzako haurrak izatea, txikiak direnean helduekin sortzen den gatazka handiagoa delako. Nerabe baten kasuan, adibidez, autonomiaren auzia ia konponduta dago. Baina haurren kasuan, esate-



rako, autoen auzia oso garrantzitsua da: haurren etsaiak dira ibilgailuak, haien espazioa murrizten dutelako, arriskua sortzen dutelako eta ondorioz gurasoek ere haien autonomia murriztea ekartzen dutelako. Halaber, eskolatik kanpoko esperientzia izatea proposatzen dugu.

Parte-hartzea proposatzen zaienean, zer jarrera hartzen dute haurrek? Oztopo edo arazorik izan duzue?

Haurren ideiak orokorrean ezkatututa daude eta ez da erraza haiengana iristea, umeek eurek ez dituztelako garrantzitsuztat jotzen. Txikitatik ikasi dute helduok pentsatzen duguna berrestea dela egin dezaketen hauturik onena, pentsamendu eta jarrera infantilak baztertu eta pentsamendu eta jarrera helduak hartu dituztela erakustea. “Haur baten antzera jokatzeko ari zara”, esan ohi dio gurasoak haurrari errieta egiteko. Aldiz, “gizontxo baten modura” jokatzea goraipamen gisa hartzen da. Hori zentzugabea da. Ondorioz, haurrek ez dute euren ideiak garrantzitsuztat hartzen, ezta helduek haienak ere. Baina guk ideia horien beharra dugu, horiek baitira alkateak ezagu-

tzen ez dituenak eta bestelako ikuspegi bat eskaintzen dutenak.

Haurren pentsamendu ezkatu horretara iristeko heziketa eskaintzen diegu haurren kontseiluetako begiraleei. Psikoanalistak gaixoarekin jarraitzen duen prozeduraren antzekoa da Ibilbide narratibo bat proposatzen dio eta entzun egiten dio gaixoari, harik eta bere ikuspuntu, esperientzia edo kulturaren arabera bestelako esanahia duen hitz edo esaldiren bat agertzen den arte; orduan, hura garatzeko eta sakontzeko eskatzen dio pazienteari. Guk jarrera hori hartzen dugu, haurrei entzutearena, harridura sortzen digun zerbait, helduen kulturakoa ez den zerbait entzuten dugun arte.

Hogeitun urte daramatzazue Haurren Hiria proiektuarekin. Nolako bilakaera izan du?

Argentinatik etorri berria naiz. Oso gauza bitxiak gertatzen ari zaizkit han. Bi unibertsitatetan *honoris causa* doktorea izendatu naute, eta bietan egitasmo horrengeatik izan da. La Platako unibertsitatearen kasuan gainean, Arkitektura fakultateak egin zuen proposamena. Alegia, aitortu du-

francesco tonucci

E

“**Hurrei entzun egiten dien helduak demokrazia ariketa handia egiten du**”

“**Botere guneetatik kanpo daudenen rol paradigmaticoa hartzen dute hurrek**”

te nire eremu naturaletik kanpo eragina duen egitasmoa dela. Izan ere, Haurren Hiria arkitektura, hirigintza, pediatria, filosofia eta zuzenbidearen alorretako eskumenen arteko trukea eragiten du, ez da maila soziologiko, pedagogiko eta psikologikora mugatzen.

Argentinan proiektua garatzen ari da arrazoi batengatik: proiektu politikotzat hartu zutelako zenbait politikarik. Rosarioko alkate Hermes Binner-ek bere proiektu nagusien artean hartu zuen, eta 2003an NBEk Latinamerikako ondoengobernatutako hiriaren saria eman zion Rosariori. Hiru arrazoi aipatu zituen epaimahaiak: hiriaren administrazioa, osasungintzan izandako esku-hartzea eta Haurren Hiria proiektua. Binner Santa Feko gobernadore izendatu zutenean, Haurren Hiriaren laborategi bat sortzea proposatu nion, egitasmoa Santa Fe eskualde osora zabaltzeko eta Rosarioko esperientzia Argentinako eta Latinamerikako beste hiri batzuei eskaintzeko. Laborategia 2008an zabaldu genuen, eta une honetan 57 hirik hartzen dute parte sarean, Argentina, Uruguai, Txile, Kolonbia, Mexikokoak... Gogoan dut Mexiko DFko alkateak esan zidana: “hurrek ematen dute segurtasuna, ez poliziak”. Haurrengan poli-

ziarengan baino konfidantza handiagoa izatea iraultzailea da.

Haurren Hiria indarrean jarri den lekuetan, sumatu duzue aldaketarik?

Aldaketa kulturala gertatzen ari da, hurrei buruz hitz egiten ari da pentsaezina zen leku batzuetan. Binnerrek betiesaten du bera proiektu honekin hasi zela politika egiten, hurrek eskumenen kudeaketa transbertsala egitea eskatzen ziotelako. Zergatik? Euren burua baino askoz jende gehiago ordezkatzeko dutelako hurrek. Boteretik, erabakiguneetatik kanpo daudenak ordezkatzeko dituzte hurrek, bestearen rol paradigmaticoa hartzen dute. Horregatik, hurrei entzuteko esperientzia onartzen duen helduak demokrazia handiko ariketa egiten du, denen administradore izateko gimnasia egiten ari da. Haurren beharrei erantzuten dien hiria herritar guztien beharretara egokitzen ari delako. Hori oso garbi ikusten da, adibidez, mugikortasunaren gaian. Alkate baten buruhauste nagusia trafikoa izan ohi da, eta normalean autoei bidea erraztuz heldu ohi dio arazoari. Hurrek ordea, hierarkia aldaketa proposatzen dute, oinezkoei lehentasuna ematea, ondoren bizikletei eta garraio publikoari, eta azkenik autoei.




PARTAIDETZA:


gurekin bada, izango da (III)




Marije APODAKA,
Gotzon QUINTANA
eta Bea UGARTE

I.2 tresna. Arauak edonon!		
A	B	EKINTZA horien EMAITZA POSITIBOAK ETA NEGATIBOAK
Nire buruari → jartzen diodan arau bat:	Kasu hauetan ez dut beteko:	
Nahitaez bete → behar dudan arau bat	Kasu hauetan ez dut beteko:	
NAHI DUDAN GUZTIA EGIN NAHI NUKE, baina...		
DEBATEAREN ONDORIOAK:		

I.3 zk.	Parte-hartze kontzeptua 
Deskribapena	Guztion gogoetaren bitartez eta talde txikietan egindako debatearen bidez, pertsona guztiak parte-hartzeari buruz duten iritzia ezagutuko dugu, eta kontzeptu hori ikasleek egindako ekarpenekin eta irakasleen azalpen teorikoekin eraikiko dugu.
Teknika	Philips 6/6
Materialak	I.3 tresna: Eta... zure iritziz, zer da parte hartzea?
Funtsezko alderdiak <ul style="list-style-type: none"> - Genero-rolak zaindu behar dira: neskek beti idazkariak izatea eta mutilak bozeramaileak izatea saihestu egin behar dugu. Honako hauek landu behar dira gutxika: rolen aldaketaren gaia, bileretako giroa segurtasuna lortzeko eta ideiak eta iritzia trukatzeko autokontrola izatea. - Funtsezkoa da pertsona guztiak beren ideiak adierazteko aukera izatea, minutu bakoitzak balio du, eta pertsona bakoitzak denbora hori arduraz erabiltzeko erantzukizuna du. - Taldeetan ez dugu inoiz neska bat bakarrik jarriko, bi neska edo gehiago egotea bultzatuko dugu, hala neskek baztertzen dituzten mutilen jarrerak neutralizatzeko, eta haien protagonismoa eta hitz egiteko joera kontrolatzeko. - Irakasleak erreferentziatzen dituzkeen parte-hartzearen definizioak arlo teorikoan jasota daude. - Azken laburpen idatzi bat egiten saiatuko gara, eta talde handian adierazitako ideia batzuk jasoko ditugu laburpen horretan. 	
Garapena <ul style="list-style-type: none"> - Taldea talde txikiagotan zatituko dugu; sei kideko taldeak izango dira gehienez ere, eta sei minutu izango dituzte irakasleak I.3 tresnan egindako galdera bati eman beharreko erantzuna eztabaidatzeko. Talde osoaren parte-hartze azkarra sustatu nahi da, denbora gutxian iritzi asko lortu nahi dira, eta planteatutako galderen aurrean desadostasunak dauden egiaztatu nahi da. - Taldeak bereizi egingo dira, tresnan agertzen diren alderdiei buruz eztabaidatzeko. Ikasle bakoitzak bere iritzia adieraziko du minutu batean. Debatea hasi aurretik, idazkari bat eta bozeramaile izendatuko dira, guztion onespenerekin (guztion artean hartutako erabakia da). - Idazkariak guztion ekarpenak jasoko ditu eta, azkeneko minutuan, taldearen iritzia laburtuko du. Bozeramaileak taldearen emaitzak adieraziko ditu bukaeran talde handiaren aurrean (edo batzarrean), eta gainerako talde txikiak emandako iritziekin erkatu ondoren, moderatzaile batek laburtuko ditu eta arbelean idatziko ditu. - Egindako lanaren laburpena idatziz jasoko da. 	

I.3 tresna. Eta... zure iritziz, zer da parte hartzea? 		
<p>Elkarte batean, eskolan, lagun taldean, etab., parte hartzea zer den azaltzeko iritzi asko dago. Batzuen ustez, egotea nahikoa da parte hartzeko. Beste batzuen ustez, berriz, gauden lekuan gaudela, egon behar duen jendeak egon behar du. Beste batzuen iritziz, aldiz, ez da horrela, eta garrantzitsuena ordezkariak izatea dela esaten dute (legebiltzarrean edo eskolako ordezkariaren kasuan, adibidez). Baina, bestalde, ideiarik edo helbururik gabe, parte hartzeak zentzurik ez duela ere esaten da.</p> <p>Zuk zer uste duzu? Zerbaitetan parte hartzera gonbidatzen zaituztenean (jolas batean, kirol batean, talde batean, lagun talde batean...), zer egin dezakezula edo egin behar duzula pentsatzen duzu?, nor egotea espero duzu, eta nor ez egotea?, zergatik gonbidatuko zaituzte?...</p>		
PARTE HARTZEN DUGU:		
...PERTSONEKIN	...INTERES eta BEHAR batzuekin	...HELBURUAK lortzeko

1.4 zk.	Inkesta: gure inguru parte-hartzailea 
Deskribapena	Eskola-elkarteko pertsonak ikastetxeko parte-hartzeari buruz duten iritzia ezagutzen saiatuko gara, eta, inkesta baten bitartez, parte-hartze hori hobetzeko proposamenak jasoko ditugu. Ikasleek entzute aktiboa eta askotariko iritzia jasotzeko eta tratatzeko zeregina landuko dituzte.
Teknika	Inkesta
Materialak	<ul style="list-style-type: none"> – I.4.1 tresna. Inkestarako jarraibideak – I.4.2 tresna. Gure inguru parte-hartzailea ezagutzeko inkesta – I.4.3 tresna. Inkesten analisia – Aukerako tresna: http://www.encuestafacil.com/. Eta http://es.surveymonkey.com/ Web-orri horietan inkesta egiteko ereduak dituzue.
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none"> – Inkesta metodo ez-esperimental da, eta psikologia sozialean erabiltzen da pertsonen lagin baten jarrerak, iritzia edo esperientziak ezagutzeko, eta, horretarako, galdeketa erabiltzen da. Abantaila asko ditu, egiteko erraza baita, baina desabantailak ere baditu, esate baterako, pertsonak edo egoerak erantzunean duten eragina edo erantzun duen pertsonak komeni zaion iritzia ematea, benetan pentsatzen duena esan gabe. Dena den, teknika egokia da ikasleek besteen iritzia entzuten ikas dezaten, iritzi horiek bilatzen saia daitezten, taldeko lana antolatzen ikas dezaten eta hurbileko ingurua hobeto ezagut dezaten. – Inkesta egiteko hautatutako pertsonak ikastetxeko kolektibo guztiak ordezkatu behar dituzte, adina eta sexua barne (ikasleak, irakasleak, familiak, administrazioko eta zerbitzuetako langileak). – Beharrik eta proposamenak jasotzen saiatuko gara, ikastetxeko pertsona eta talde guztien parte-hartzea hobetzeko. 	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none"> – 3 lagunez osatutako talde txikiak egingo dira (inoiz ez neska bat bakarrik) inkesta, laburpena eta batzarreko bateratze-lana egiteko. – Inkestaren dinamika zehatz-mehatz azalduko diegu, eta 1.4.1 Inkestarako jarraibideak tresna landuko da. – I.4.2 Gure inguru parte-hartzailea ezagutzeko inkesta tresna erabiliko dute egokitu zaient taldeko (ikasleak, irakasleak, familiak, jangelako langileak eta administrazioko langileak) 3/4 pertsonari galdetzeko. – Iritziak bildu ondoren, laburpen bat egingo dute eta talde handiaren aurrean edo batzarrean aurkeztuko dute; horretarako, I.4.3 tresna erabiliko dute. 	

1.4.1 tresna. Inkestarako jarraibideak

Iritzia eskatuko diegun pertsonengana hurbildu aurretik, honako hauek egingo ditugu:

1. Nori galdetuko diegun eta pertsona horiek nola aurkituko ditugun zehaztuko dugu.
2. Inkesta eta berorren helburuak ondo ezagutu behar ditugu (I.4.2 tresna)
3. Taldeko pertsona bakoitzaren zereginak banatuko ditugu.
4. Lan guztia nola egingo dugun erabakiko dugu.
5. Beharrezko material guztiak prestatuko ditugu: inkestaren fotokopia, bolaluma...

Inkesta egiten dugun bitartean:

1. Galdera egingo diegun pertsonarengana jendetasunez hurbilduko gara, eta gure burua aurkeztuko diegu.
2. Berarengana hurbiltzeko arrazoia azalduko diegu, eta inkestari une horretan erantzun diezaiokeen galdetuko diegu; bestela, beste uneren baterako egingo dugu hitzordua.
3. Lanaren helburua eta inkestaren dinamika erakutsiko dizkiogu (galdera motak, eskainiko diegun denbora, izango duen erabilpena, etab.).
4. Interesa agertuko dugu inkesta egingo diegun pertsonaren iritziaren aurrean.
5. Galderekin hasiko gara: argi irakurriko ditugu, arretaz entzungo ditugu erantzunak, inkesta egiten diegun pertsonari begiratuko diegu eta irribarre egingo diegu, esaten duena jasoko dugu, ulertzen edo ezagutzen ez duguna galdetuko diegu...
6. Amañutakoan, eskerrak emango dizkiogu eskainitako denboragatik eta emandako iritziengatik, hurrengo baterako hitzordua eskatuko diegu emaitza orokorrak emateko, eta adeitasunez agurtuko dugu.

Inkesta egin ondoren:

1. I.4.3 tresnarekin, emaitzak landuko ditugu.
2. Emaitzak eskuratutakoan, inkesta egin diegun pertsonari emaitzen berri emango duen agiri bat helaraziko diegu, eta parte hartu izana eskertuko diegu.

1.4.2 tresna. Gure inguru parte-hartzailea ezagutzeko inkesta

Gizon batek erantzuten du:

Emakume batek erantzuten du:

1. Zure ustez, ikastetxe honetan parte hartzeko aukera berdinak dituzte guztiak? (jardueretan, erabakietan, debateetan...)
 - a. Bai
 - b. Ez
2. Nork parte hartzen du gehiago ikastetxeko jardueretan?
 - a. Emakumeek edo gizonek?
 - b. Zergatik?
3. Gehiago parte hartu behar dugula uste duzu?
 - a. Bai...
 - i. Nork?...
 - ii. Zertarako?
 - b. Ez...
 - i. Zergatik?...
4. Zure ustez, zerbait hobetu behar da parte-hartzea sustatzeko?
 - a. Bai...
 - i. Zer?
 - b. Ez...
5. Zerbaitetan parte hartu nahiko zenuke?
 - a. Bai
 - i. Zertan?
 - b. Ez
 - i. Zergatik?




1.4.3 tresna. Inkesten analisia



Taldean, tresna hau erabil dezakezue lortutako erantzunak laburtzeko eta aztertzeko


Erantzun duten gizonen kopurua	
Erantzun duten emakumeen kopurua	
Ikastetxe honetan guztiak berdin parte har dezaketela uste duten emakumeen kopurua	
Ikastetxe honetan guztiak ezin dutela berdin parte hartu uste duten emakumeen kopurua	
Ikastetxe honetan guztiak berdin parte har dezaketela uste duten gizonen kopurua	
Ikastetxe honetan guztiak ezin dutela berdin parte hartu uste duten gizonen kopurua	
Emakumeek gehiago parte hartzen dutela uste duten pertsonen kopurua	
Gizonek gehiago parte hartzen dutela uste duten pertsonen kopurua	
Emakumeek parte hartzen duten esparruak	
Gizonek parte hartzen duten esparruak	
Gehiago parte hartu behar dela uste duten pertsonen kopurua	
Gehiago parte hartu behar ez dela uste duten pertsonen kopurua	
Gehiago parte hartu behar duten pertsonak edo taldeak	
Parte-hartzea areagotu behar den esparruak	
Inkestan parte hartu duten pertsonen parte-hartzea hobetzeko egindako proposamenak	
Parte hartu nahiko luketen esparruak	
Adierazi inkestaren 5 ondorio garrantzitsu:	
1.	
2.	
3.	
4.	
5.	
Adierazi parte-hartzea hobetzeko taldean sortutako 5 proposamen:	
1.	
2.	
3.	
4.	
5.	

I.5 zk.	Aginduekin jolasean: inplikazioa, bat ez etortzea, bat etortzea. 
Deskribapena	Jolas honetan, honako hau landu nahi dugu: aginduak betetzeak zer dakarren, hainbat norabidetan mugitzea, talde batean zentzu eta helburu berberak izatea, edo modu aleatorioan edo irizpide desberdinekin mugitzea. Langintza horretatik ondorioak aterako ditugu, elkarrizketa eta adostasuna aldarrikatzeko.
Teknika	Jolasa: robotak izango gara, kontrolatzen gaituzten pertsonen agindura
Materialak	<ul style="list-style-type: none"> - I.5 tresna, aginduekin jolasean: inplikazioa, bat ez etortzea, bat etortzea. - Aginduen taula eta gertatutakoaren analisia. - Koloretako kartoi meheen zatietan aginduak idatziko ditugu: horia - etzan lurrean; urdina - jarri hormaren kontra eta besoak gurutzatuta; berdea: erdira - bizkarrak bizkarren kontra.
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none"> - Arauek egin beharreko mugimenduak, hartu beharreko erabakiak eta harremanak gidatzen dituzte. Aginduekin jolas egingo dugu, arauaren aurrean hartzen dugun jarrera barneratzeko. - Zaila gertatzen zaigu gure arauak betetzea eta erabaki pertsonalak hartzea. - Adostasuna lortzea erraza ez bada ere, baliagarria da harremanetan eta erabakiak hartzeko orduan. Ulertzen eta onartzen ditugun arauak eta mugak daude. - Ezarpenaren sentimenduak gure autonomia garatzea eragozten digu. - Adostasuna lagungarri izango zaigu gure harremanetan. 	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none"> - Lauko taldeak egingo ditugu, kideetako bat arduraduna izango da eta gainerakoak robotak izango dira, eta gelan batera eta bestera ibiliko dira. Taldeko koordinatzaileak araua betearazi behar du, eta bere taldeko pertsoneri noranzkoa aldatzen lagunduko die oztopo bat aurkitzen dutenean eta alarma jotzen dutenean; izan ere, robotak zuzen eta aurrerantz baino ez dira ibiliko. - Gogoan izan: pertsona guztiak berdin mugitzen dira, roboten antzera ibiltzen dira eta taldeko arduradunak laguntzen badie soilik aldatuko dute noranzkoa. Oztopo bat aurkitzen badute gelditu egiten dira, eta, alarma joz, dauden tokian itxarongo dute arduraduna laguntzera etorri arte. - Dinamizatzaileak aginduak emango ditu, ikasleak gelan roboten moduan batera eta bestera mugi daitezten eta arduradunek lagun diezaieten. - Pertsona batzuek BESTE AGINDU BAT jasoko dute koloretako kartoi mehe batean. Agindu hori bete egingo dute, eta gainerakoengandik bereiziko ditu horrek. Esan dieten jarreran geldi-geldi egongo dira eta ez dira gehiago mugituko. Begira geldituko dira. - Aginduak bete ondoren, eseri egingo gara eta gogoeta egingo dugu. Lehenik eta behin, zer moduz sentitu diren galdetuko diegu, eta ea sentimendu, bizipen edo arazoren bat partekatu nahi duten. - Ondoren, egoera bakoitzari dagozkion galderak aztertuko ditugu. 	

I.5 tresna. Aginduekin jolasean: inplikazioa, bat ez etortzea, bat etortzea.



Mugitzeko aginduak	Gogoetarako proposamenak
Begiak irekita ditugula mugituko gara guztiak	Erraza al da araua betetzea?
Begiak irekita ditugula mugituko gara berriro guztiak	Laguntzailea edo robota izatea nahiago duzu?, nork pasatu du hobeto?, noranzkoa aldatzen lagundu didate edo ez didate jaramonik egin? Araua hausteko gogorik izan al dut?
(Horiak banatu- Etzan lurrean) Oso-oso poliki mugituko gara, oztopoa bilatzen azkenak izan gaitezen	Pertsona batzuek desberdin pentsatzen eta jokatzeko dute. Eskatutakoa egin dute: nola sentitu dira, hobeto izango litzateke araua ez betetzea eta besteek egiten zutena egitea? Erraza al da ADOS EZ EGOTEA?
Begiak itxita ditugula mugituko gara	Zer sentitzen dugu begiak itxita ditugunean? Polikiago ibiltzen naiz? Tranpa asko egin ditugu?
(Urdinak banatu - Jarri hormaren kontra eta besoak gurutzatuta) Begiak irekita ditugula mugituko gara	Pertsona desberdinak daude. GURE IRITZIA ETA ERABAKIA DEFENDATZEA merezi du gehiengoak beste gauza bat pentsatzen eta egiten duen talde batean?
Begiak itxita ditugula mugituko gara	Begiak ixteak "besteek ni eramaten uztea, nahi dutena egin dezaten uztea, berdin zaidala, paso egiten dudala..." esan nahi du?
(Berdeak banatu - Erdira, bizkarrak bizkarren kontra) Begiak irekita ditugula mugituko gara	Desberdintasunak daudenean, norbait ROBOT sentitzen al da?, nola hartzen da erabaki bat?, nork erabakitzen du?, inor haserretzen al da?, norbaitek amore ematen al du?
BILATU ADOS JARTZEA ZAILA DEN EGOERA ERREALAK ETA AZTERTU	
Identifikatu elkarrizketa, adostasuna edo partekatutako erabakia erabiltzen diren egoerak pertsonarentzat eta taldearentzat duen abantailaren edo onuraren bat.	
Gauza guztietan ados ez egoteak erabaki partziala hartzea eragozten du? Zure ustez, harreman baten edo interes edo behar desberdinen bi muturren erdigune geometrikoan, erdian, dago adostasuna?	

1.6 zk.	Talde osasuntsua / talde gaixoa 
Deskribapena	Jarduera honetan, talde batek zeregin bat, debate bat ondo edo gaizki egiteko, edo erabaki egokiak edo desegokiak hartzeko ezaugarriak eta elementuak identifikatuko ditugu. Antzezpen txiki baten bitartez egingo dugu.
Teknika	Role-playing
Materialak	I.6.1 baliabidea. Lantaldea I.6.2 baliabidea. Talde osasuntsua eta talde gaixoa hautemateko jarraibideak I.6.3 baliabidea. Taldearen lankidetzta-egitura vs taldearen egitura lehiakorra
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none"> – Garrantzitsua da pertsona guztiok zeregin bat izatea antzetzenean: aurkezlea, aktore nagusia, kamera... Mutilen eta nesken protagonismoak orekatua izan behar du denborari, paper nagusiei eta abarri dagokienez. – Talde batek modu egokian lan egiteko elementu positiboak eta lantaldeen lana eragozten duten alderdi negatiboak bereiziko ditugu. 	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none"> – Bi talde egingo ditugu: osasuntsua eta gaixoa. Ez diegu ikasleei inolako azalpenik emango, ondo lan egiten duen talde bat eta gaizki lan egiten duen beste bat antzetzeko behar dituztela esango diegu soilik. Lantaldeak izango dira. Honako hauek antzez ditzakete: debate bat, erabaki bat hartzeko une bat, jarduera bat egiteko une bat, zereginen eta arduren banaketa, sortu den gatazka bat konpontzeko une bat, jolasean dabilzan une bat, etab. – Antzezpen bakoitzean, talde bakoitzak bere aldetik, egokitu zaion taldearen gidoia antzetzeko du, eta beste taldearen aurrean aurkezteko “sketch” bat prestatuko du. – Antzetzten ari ez den taldeak antzetzten ari den taldea “osasuntsu” edo “gaixo” dagoen adierazten duten ezaugarriak idatziz jaso behar ditu. Jaso dutena bateratu egingo dute eta, beharrezkoa bada, azalpena osatuko dugu. – Zer balioetsi behar duten azalduko diegu: pertsona guztien parte-hartzeak orekatua izan behar du, taldearen ezaugarriek egokiak izan behar dute (osasuntsu edo gaixo dagoen kontuan hartuta), umorea errespetuz erabili behar da, gidoiak koherentea izan behar du. 	
Sakontzeko:	
<p>PAC Proiektua – VICeko Unibertsitatea, Pere Pujolas, José Ramón Lago http://www.cife-ei-caac.com http://www.educacion.gob.es/dctm/ministerio/educacion/actividad-internacional/cooperacion-educativa/2009-ponencia-20-pere-pujolas.pdf?documentId=0901e72b8008ba70 http://www.revistaeducacion.mec.es/re349/re349_11.pdf http://www.slideshare.net/bgune20/pere-pujols-lan-kooperatibo http://b06elkarbizitzamintegia.wikispaces.com/Lan+kooperatiboa</p>	

1.6.1 baliabidea. Lantaldea

Parte-hartzea sustatzeko jarduera taldekideen arteko harremanaren bidez garatzen da. Berorren oinarritzko zereginetako bat helburuak elkarrenganean garatzeko eta garapen hori sustatzeko bidea emango duten lantaldeak osatzea da.

Taldeek errealitate dinamiko eta aldakorra izango dute, eta beroriek osatzeko eta eraikitzekeo prozesuan, hainbat une eta **etapa** biziko dituzte:

- Hasieran, taldea eratuko da.
- Horren ondoren, konfrontazioarako eta taldean rola hartzeko mugimenduak etorriko dira.
- Gero, konpromisorako eta harmoniarako joera nagusituko da, arauak (esplizituak eta implizituak) onartuz.
- Eta azkenik, lana betetzea, eraginkortasuna, produktzioa eta emaitzak etorriko dira.

Hauek dira **talde on** batek izan behar dituen ezaugarriak:

- Giro informala, eroso eta tentsiorik gabekoa izatea. Laneko giroak pizgarri izan behar du. EZ dago aspertze arrastorik.
- Eztabaidak edota desadostasunak badaude, baina taldea garatzen ari den zereginaren esparruan beti, inoiz ez eraso pertsonal gisa.
- Taldearen zeregina eta helburuak ondo ulertu eta onartu dira. Horietaz nahikoa hitz egin da eta nahiko zehatza dira, eta, beraz, taldeko kide guztiek partekatzen dituzte.
- Erabaki gehienak aho batez edo halako adostasun batez hartzen dira; argi uzten da, oro har, guztiak ados eta aurrera egiteko prest daudela.
- Kritikak maiz baina zintotasunez egiten dira, eta, normalean, ez diote inori enbarazu egiten edo tentsiorik sortzen. Zeharkako edo zuzeneko eraso pertsonalen azarna gutxi daude. Kritikak eraikitzaileak izan ohi dira, taldeari eragiten dioten eta egin nahi duena egiteko eragozpen diren oztopoak kentzera bideratzen baitira.
- Guztiek askatasun osoz adieraz ditzakete beren iritziak, sentimenduak edota ideiak taldearen alderdi guztiei buruz: funtzionamendua, proiektuak, askotariko gaiak... Ez dago beldurrik edota oinarririk gabeko presiorik. Guztiek adi entzuten diote elkarri.
- Ekintza bat garatzen hasten direnean, egin beharrekoak definitzen eta egokiro banatzen dira. Guztiek dakite zer egin behar duten, eta zertarako.
- Ez da beti taldearen koordinatzailea edo dinamizatzailea nagusitzen, eta taldea ez da mugatzen besterik gabe hark esana betetzera. Inguaruaren arabera eta emaitzak ebaluatu ondoren, rola aldatu egiten dira.
- Taldeak ezagutzen du jarduera-plana, eta badaki garatzen ari diren jardueren zergatia. Askotan, nola ari diren ebaluatzekeo eta beren lana zerk oztopatzen duen aztertzekeo, geldiuneak egiten dituzte.

Parte-hartzean oinarritutako talde horien jarduerak aurrera egiten du konfiantzari, lankidetzari, komunikazioari, taldearen eraginari eta bertako kide izan nahiari esker. Berdintasun-balioak eta parte-hartzea sustatzeko bidea irekitzen dute prozesu horiek:

- Lankidetzatza
- Elkarren arteko mendetasuna
- Adiskidetasuna
- Ikaskuntza
- Norberaren ezagutza eta inguruaren ezagutza (pertsonak eta bitartekoak)
- Komunikazioa
- ...

Taldeko kide diren pertsonak bizitzen ari diren harremanetan, ezinbesteko garrantzia dute alderdi hauek:

- Aurretiko bizipen motak.
- Elkarrenganean harremanetan dauden pertsona horien balioak eta bakoitzak bere buruaz egiten duen balioespena.
- Garatzen ari diren bilakaera-unea.
- Erabiltzen ari diren jarduerak eta metodologia.
- Taldekideekin eta beste talde batzuekin elkartzekeo moduak.
- Taldean lan egiteak ematen dien gogobetetasuna.

Talde-lana sustatzekeo duten balioak garatzeak (lan horren alderdi onenei lehentasuna emanez eta hautematen diren zailtasunak gaindituz) gizartean okerren dauden pertsonen parte-hartze soziala sustatzen lagunduko du, harreman sozialetarako zailtasunak eragoztekeo eta trebetasun sozialak indartzen laguntzekeo; norberaren burua ezagutzen, lagunak egiten, bakoitzaren alderdi onak identifikatzen, balioesten eta erabiltzen, besteak ezagutzen eta, azkenik, taldearen helburua lortzen lagunduko du gainera.

Horregatik guztiagatik, askotan, ezinbestekoa da **entrenatzea** eta **ikastea**; izan ere, banakakotasuna, lehia, mendetasuna, otzantasuna... talde-tik kanpo dauden eguneroko jarduerak dira, eta nahitaezkoa da eskarmentu horri aurre egitea. Azken hori gatazka eta aurrez aurretarako arrazoi izan daiteke, batik bat interesik ez badago edo oso desberdinak badira. Ez gaitu geldiarazi behar gatazkek izatekeo beldurrak; badakigu hori bera positiboa izan daitekeela aurrera egitekeo, ikastekeo, elkarrenganean jardutekeo. Badakigu nola konpondu gatazkek, eta badakigu, gainera, kasurik gehienetan irtenbidea edo askotariko irtenbideak daudela.

Kalitate-egitasmo integratua

Nola bihurtu nire ikastetxea prozesuen eta pertsonen lanaren hobekuntzan oinarritutako erakunde



Jone ARETA URRESTARAZU

TXIOKA HAUR IKASTOLAKO ZUZENDARIA

NOLA ARRAZOITU DAITEKE, GAUR EGUN, ESKOLARI EGITEN ZAION KALITATE-ESKAERA ETENGABEA?

ARRAZOI HISTORIKOAK

Hasiera baten kalitatea adreilutan definitu zen, edo gauza bera dena, *guztiantzako eskola postutan*.

Aurrerago, *bitarteko, baliabide tekniko eta ratio egokitan* definitu zen.

Azkenik, agenteen gaitasun moduan, eta pertsonen itzaropen eta interesei erantzuten dien zerbitzu moduan definitzen da.

ARRAZOI SOZIOLOGIKOAK

Gizakiaren bizi premiak asetzen dituzten oinarritzko eremuak hiru dira: *bizitza eta osasunaren eremua (osasungintza), askatasunaren eremua (zuzentza), eta gizarteratze, lan eta*

bizitza-egitasmoaren eremua (hezkontza). Eskola, hortaz, funtsezko eremu horietako bat dugu.

Herrialderik industrializatuenetan hiru eremu horiek bizi-kalitate deritzonaren ardatza osatzen dute. Horregatik dira herrialde horiek hain sentiberak haien kalitateari dagokionez.

ARRAZOI TEKNIKOAK

Badira beste indar batzuk, zerbitzua hobetuko duten aldaketak bultzatzeko asmoz, hezkuntza-sistemari presioa egiten diotena, esate baterako, jaiotza-kurbaren jaitsierak eragindako *ikastetxeen arteko lehia; ikastetxeak kanpotik ebaluatu beharra; autonomia eta partaidetza handiagoen eskakizuna; gaurko giza gurari eta premiei* (aisialdia, teknologia berriak, eskakizun profesional berriak, etab.) *hobeto egokitzen zaizkien zerbitzuen eskaera*, etab.

Azkenik bada izaera HUMANISTA

duen beste arrazoi bat, herritarrek eskolari egiten dioten kalitate-eskaera azaltzen duena: hezkuntza, gizakiaren ongizatea eta gizarte aurreratuen bizi-kalitatea ziurtatzen duen funtsezko ondasuntzat hartzen da.

Arrazoi horiengatik, duela hogeitau urtetik hona, ikastetxeei kalitatearen kudeaketarako ereduak eskaintzen zaizkie, halako eskari mota berriei erantzuten laguntzeko.

ZER DA KALITATEA KALITATE-EGITASMO INTEGRATUAREN ESPARRUAN, HEZKUNTZAN PENTSATUZ?

- Kalitatea, lan egiteko eraren aldaketari, prozesuen eta pertsonen etengabeko hobekuntzari, irakasleen eta administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren hazkuntzari, eta ikasle, sendi eta erakundearen itzaropenei erantzuten dieten emaitzei lotuta dago.

- Mortimoren esanetan, kalitateko es-



kola, ikasleen aurrerakuntza intelektual, sozial, moral eta emozionala sustatzen duen eskola da. Kalitateko eskolak bere egile eta jasotzaileen gaitasunak bultzatzen ditu, aipatutako arloetan emaitza onak lortzeko.

ZER DA KALITATE-EGITASMO INTEGRATUA?

Ikastetxeetan esku hartzeko eredu bat da, eta kultura burokratiko formaletik pertsonen hazkuntza gizatiar eta profesionalean oinarritutako kultura transformazionalerako aldaketa bideratzea eta erraztea du helburu.

KEI-REN KALITATE-PRINTZIOAK

1. Pertsonen asebetetzea.
2. Hezkuntzako jarduera guztiak ikasle-ari pertsona gisa zuzentzea.
3. Inplikazioa.
4. Aitzindaritza konpartitua, eskolaren hobekuntzan konprometitua.
5. Ebaluazioa.
6. Eraginkortasuna eta emaitzak.

OINARRI KONTZETUALA

Zein esperientzia eta ikerketatan dago oinarrituta KEI?

a. Eredua ehunetik gora ikastetxe publiko eta pribatuetakoa maila guztietan esperimentatu duten bideratzaileen lanean eta profesionaltasunean dago oinarrituta.

b. Kalitate-adierazleak, hezkuntzako ikerketa orokorretik eta Europako ikerketa nagusietatik hartu dira, hala nola, Eskola Eraginkorren Mugimendutik eta Eskolaren Hobekuntzarako Nazioarteko Egitasmotik.

c. KEI aurrera eramateko estrategia, Erakundearen Garapenean eta Ikasten duten Erakundearen eremuan oinarritzen da, eskola ikasteko gai den elkartetzat hartzen duten ereduaren, alegia.

KALITATE-EGITASMO INTEGRATUAREN EGITURA

Beste kalitate-eredu batzuen aplikazioa,



zioa, enpresa-kulturaren arrakastaz esperimentatutako irizpideetan oinarritzen da; KEI, ordea, eremutan, kalitate-irizpidetan eta irizpide horiek ikastetxearen testuinguruan zehazten dituzten hainbat adierazle-

A) Ikastetxeko bizitza sei eremutan sistematizatzen dugu, irakaskuntzari eta hezkuntzari estu-estu lotuta dauden sei eremutan. Eremu bakoitzean zenbait kalitate-irizpide definitzen dira, eta kalitate-irizpide bakoitza adierazle bidez zehazten da.

tan egituratu da. Ikus dezagun zehatzago.

Eremuak eskola erakundearen garapenean oinarritzko arloak dira. Zazpi eremu nagusi bereizi dira:

1. Erakundearen planteamenduen eremua.
2. Antolakuntza-egituren eremua.
3. Harreman- eta elkarbizitza-sistemen eremua.
4. Tutoretza- eta orientazio-eremua.
5. Curriculumaren eremua.
6. Familiaren eta inguruaren eremua.
7. Administrazio- eta zerbitzuetako eremua.

Irizpidea epaitzeko edo baloratzeko arau bat da. *Kalitate-irizpideek* zeharkako ardatz edo eremu pedagogikoetan lortutako kalitate-maila epaitzea ahalbidetzen dute. Kalitate-irizpide horiek, hezkuntzako ikerketak, oro har, eta kalitateari, hobekuntzari eta eraginkortasunari buruz egin direnak kontuan hartuta zehaztu dira.

Adierazlea zera da: helburu jakin batez, ikastetxeko arloren batean egindako ahalegina, etekina edo hobekuntza baloratzeko,



sistematikoki eta adosturik jasotako datu kuantitatibo edo kualitatiboak.

Deskribatzailea edo *erakusgarria* adierazlearen betetze-maila zehazten duen informazio zehatza da.

Ereduan erabiltzen den AUTOEBALUAZIO GIDA, egitura horretan oinarrituta dago. Argiago ikusteko, adibide bat aurkezten dugu.

I. EREMUA: ERAKUNDEAREN PLANTEAMENDUAK

Eremu hau ikastetxeko kultura formalari dagokio. Etorkizuneko erakunde batean aintzat hartu beharreko lau ezaugarri nagusi ukitzen ditu: kalitatearen definizioa, eginkizuna, ikuspena eta erakunde baloreak. Aldi berean, hurrengo dokumentu instituzionaletan zehaztutako arrakasta faktore kritikoak barneratzen ditu: Ikastetxearen Hezkuntza, Proiektua, Urteko Plangintza Orokorra eta Plan Estrategikoa.

1.1. KALITATEAREN KONPROMEZUA estandarra:

Ikastetxean bada pertsonalak adostutako 'kalitate' kontzeptuaren definizioa jasotzen duen dokumentua eta erreferentzia egonkorra da.

ADIERAZLEAK

1.1.1. *Ikastetxean bada 'kalitate' kontzeptuaren definizioa jasotzen duen dokumentu esplizitua.*

1.1.2. *'Kalitate' kontzeptuaren definizioa bertako ikastolakoan artean adostutako erabakia izan da.*

1.1.3. *P.Estrategikoak eta UPOk kalitatearen ideiak jasotzen dituzte euren helburuetan.*

1.1.4. *Bost urtero, 'kalitate' kontzeptuaren eguneratze-prozesua burutzen da.*

B) Egitura hori eremuak zeharkatzen dituzten hiru ardatzekin osatzen da:

1. *Kulturaren ardatza*, kultura transformazionalari lotua.
2. *Prozesuen ardatza*, arrakasta faktore kritikoari lotua.
3. *Emaitzen ardatza*, pertsonen asebetetzeari lotua.

ZEIN METODOLOGIA ERABILTZEN DUGU?

Kalitate- eta hobekuntza-mugimendu gehienetako metodologia erabiltzen dugu, talde-lana, erabakiak elkarren artean hartzea eta adostasuna bilatzea bultzatzen dituen ereduaren oinarritua. Ereduaren garapenean, hobekuntza-taldeen partaidetza aktiboa dute prozesua eta bilakaera bideratu behar dituzten erabakiak hartzeko orduan.

Eredua aurrera eramateko, prozesuan zehar, hobekuntza-taldeei zenbait estrategia eta tresna eskaintzen zaizkie ondoko urratsetarako:

- *Erabakiak hartzeko: brain storming*, metaplana, elur-bola, diamantearen teknika eta lehenespenearen teknika.
- *Laginak zehazteko eta datuak biltzeko:* galde-sortak, elkarrizketarako gidak, probak, etab.

• *Diagnosia egiteko:* Ishikawaren arantza, interesaren printzipioak, etab.

• *Plangintza egiteko:* plangintza estrategikoa, Demingen gurpila, PDCA, egitasmoen kudeaketa, etab.

• *Ebaluatzeko:* Autoebaluazio Gida (KEI ereduaren berriazko tresna).

Hobekuntza-taldeen lanerako, "hausnarketa-ekintza" estrategia erabiliko dugu, Ellioten "ikerketak-ekintza"-ren zenbait aspektu jasotzen dituen.

Ereduaren ikuspen oso eta batuagoa izateko, ikusi ondoko irudia:



NOLA EZARTZEN DA KALITATE-EGITASMO INTEGRATUA?

KEIren ezarpenak 8 fase ditu, ondorengoak alegia:

INFORMAZIOAREN FASEA

KEIn sartu aurretik, Organo Gorenari, zuzendaritza-taldeari eta langile guztiei informazioa eman behar zaie, KEIren ezaugarri orokorrez, proiektuaren iraupenez eta baldintzez nola aurrekontuez.

KALITATEAREN KONPROMISOAREN FASEA

- KALITATEAREN DEFINIZIOAREN adostasuna:

Ikastetxe bakoitzak, kalitatez edo etengabeko hobekuntzan lanean aritzeko irizpideak edo arrakasta-faktore kritikoak adosten ditu, hots, kalitatearen definizioa landu eta adosten du.

- Ikastetxeko EGINKIZUNAREN DEFINIZIOA:

Proiektuan parte hartzen dutenek definitzen dute erakundeak izatera heldu nahi duena. Eginkizuna erakundearen nortasuna definitzen duen asmoen adierazpena bezala ulertzen da.

- Ikastetxeko IKUSPENAREN DEFINIZIOA:

Ikuspenak ikastetxeko gobernu- eta gestio-organoak, eta baita ere, langileek hautatua eta onartua izan behar du. Horretarako, ondoko baldintzak bete behar ditu:

* Erakundearen eguneroko bizitzari egokitu behar zaio.

* Partekatua izan behar du.

* Erakundearen gertakizun eta prozesu-gakoak interpretatzen lagundu behar du.

* Ikastetxeko kulturaren barneratu behar da.

- ADIERAZLE PROPIOAK FINKATU ETA AUTOEBALUAZIOA EGITEKO ARGIBIDEAK EMAN:

Autoebaluazioaren fasean sartu baino lehen, eta, aldi hori bukatzeko, partaideek ikastetxea ebaluatzeko erabiliko duten AUTOEBALUAZIO GIDA txertatzeko zenbait adierazle adosten dituzte. Halaber, ebaluazioa nola egin behar duten ikasten dute.

EBALUAZIO ETA DIAGNOSTIKO FASEA

Aurrez aipatutako gidaren bidez egiten da eta bertan parte hartzen dute irakasle langileek, ez-irakasleek eta gurasoek.

Tresna honek 7 eremuetako estandarrik baloratzen ditu adierazleen bitartez, alderdi sendoak eta ahulak zein diren antzeman eta horien artean lehenetsunak finkatuz, lana nondik hasi behar den erabakitzeke.

Laugarren fasea hasi baino lehen, langileria osoari eta Artezkaritza Kontseiluari edo dagokion Organo Gorenari aurreko faseetan egintako lan guztia aurkezten zaie, emaitzak zein izan diren adieraziz. Halaber, laugarren fasean parte hartuko duten Hobekuntza Taldeak eratzen dira.

HOBKUNTZA-TALDEEN PROIEKTUEN DISEINATZE FASEA

Komenigarria da hobekuntza-taldeak etapa guztietako ordezkariak osatutako taldeak izatea. Fase honetan hobekuntza-taldeek prestakuntza jasotzen dute proiektuetan lehenetsitako alderdi ahulak hobetzeko eta, noski, klaustruari eta Organo Gorenari hobekuntza-proposamen egingarriak eta errealistak aurkezteko.

PROIEKTUEN HEDATZE EDO IMPLEMENTAZIO FASEA

Proiektuak egin ondoren aurrera atera behar dira. Fase honen helburua garbia da: diseinatu diren proiektuak aurrera atera be-



har dira, hobetzeko zeuden arloak hobetu daitezten, hain zuzen.

Horretarako bi egitura sortzen dira ikastetxearen barruan:

1.- **KEIren koordinazio-taldea:** zuzendari edo KEIko arduraduna eta proiektuetako arduradunak osatutako taldea.

2.- **Proiektu-taldea:** proiektu bakoitzeko arduradun eta bere talde edo ekipoa.

FASEA: ESTANDARREN ARAKATZEA KANPOKO AUDITORIAREKIN

Hobekuntza-proiektuen garapenaren ondoren, fase honen helburua hau da: eremu bakoitzaren estandarren betetze-maila zertan den arakatzea.

Ebaluazio berri hori kanpoko auditoriak egingo luke, txosten bat idatziz non hobekuntzarik behar duten estandarrik zehaztuko lirakeen. Akreditaziorako urrats bat izango litzateke.

EGUNERATZEA

Fase honetan akreditazioa lortzeko hartu behar diren neurri, ekintza eta hobekuntza-proiektu eguneratuak gauzatzen dira. Prestatze-prozesu horretan ikastetxe bakoitzak bideratzaileen laguntza izaten du, aurreko fase guztietan bezalaxe.

KREDITAZIOA

Aurreko fasea osatu ondoren, ikastola bakoitzak eska dezake kanpoko auditoria egitea kalitatearen ziurtagiria lortzeko.

Auditoria kanpoko auditore talde batek egingo du eta ikastetxe bakoitzak prestatu beharko du eskatzen den guztia.

IKASTETXEKO NOR INPLIKATU BEHAR DA KEIN?

a) Zuzendaritza-taldea

Lehen harremanak. Zuzendaritza-taldeak, erakundeko aitzindariak duenez gero, ereduaz ahalik eta informazio gehien edukitzea ezinbestekoa da. Zuzendaritzako kideak inplikatzearen garrantziaz ohartarazi nahi ditugu, haien esku-hartzea erudugarria izan dadin. Normalean, *inplikazio-bitzarmena* deritzogun kontratua sinatzen da. Bertan programa, ereduaren oinarriko printzipioak, agenda, kostuak, finantzatzeko modua, etab. azaltzen dira.

b) Irakasleen klaustrua

Programak arrakasta izateko, zuzendaritza-taldeak gai izan behar du klaustroaren parte esanguratsu bat ilusionatzeko eta haiengan parte hartzeko nahia pizteko. Gutxienez, klaustroko irakasleen erdiek parte hartu behar dute.

c) Administrazioa eta zerbitzuetako langileak

Kalitate-eredu honek garrantzi bera ematen die irakasle taldeen erdiaren partaidetzari batetik, eta lehen lerroko (hots, administrazio eta zerbitzuetako) langileak, hala nola, bestetik, atezainak, administrariak, jantokikoak, bidaietakoak, garbitzaileak, etab. modu aktiboan inplikatzeari. Gehienetan, ikasleek eta sendiek haien bitartez jasotzen dute ikastetxearen lehen irudia. Haien lekukotasuna eta ongi egitea, hau da, haien gaitasun profesionala, ikastetxearen prestigioaren eta zerbitzuaren kalitatearen berme dira.

d) Familiak.

Nahiz eta gurasoen inplikazioa ikastetxearen bizitzan, oro har, eskasa den, beharrezkoa ikusten dugu, ikastolen bilakaera ikusiz, gurasoen parte-hartzea eredu honetan ere. Hainbat urtetako esperientziaren ondorioz, KEIn dauden zenbait ikastolak demostratu dute gai direla bai gurasoak eta baita irakasleak ere prestakuntza jasotzen, proiektuetan kide izaten eta lankidetzan arituz- proiektu horiek aurrera ateratzeko.


NOLA IZAN DA TXIOKA HAUR IKASTOLAK AKREDITAZIOA LORTU BITARTEAN JARRAITU DUEN PROZESUA?

Txioka Haur Ikastola urte askotan Iñigo Aritza Ikastolaren ildo estrategiko baten inguruan egindako lanaren emaitza da. Iñigo Aritza Ikastolak Haur Hezkuntzako lehen ziklo osoaren ezarpena ezarri zuen ildo estrategiko gisa, lehen ziklo honen hirugarren maila soilik baitzuen, hots, bi urtekoen gela. Aukerak aztertu ondoren, Iñigo Aritza Ikastolaren guraso elkartearen izenean enpresa bat sortzea erabaki zen, modu honetan Iñigo Aritzarengandik juridikoki eta administratiboki independentea den ikastetxe bat sortzeko. Administratiboki independenteak diren bi ikastetxe izan arren, proiektu pedagogiko bakar bat osatzen dugu, eta kudeaketa-eredu bera jarraitzea erabaki genuen.

2008ko maiatzean, Iñigo Aritza Ikastolak KEI kalitate-akreditazioa eskuratu zuen eta, urte berean, irailean, Txioka Haur Ikastolak atek lehen aldiz ireki zituen. Lehe-

nengo egunetik KEI ereduaren ezarpenarekin hasi ginen, honako fase hauek burutuz:

• Pertsonengan antzemandako premia-ri eta itxaropenei erantzun profesionalagoa (egokia eta zehatza) ematea.



Aipagarria da, akreditazioa lortzeko erabili dugun denbora oso laburra izan dela, eta, ibilbide horretan, hainbat abantaila eta zailtasun aurkitu ditugula. Hauek:

ABANTAILAK

Ondokoak lortu ditugu:

- Irakas-jardunaren hobekuntza hausnarketa-ekintzaren bidez.
- Arrakastarako funtsezko prozesuen zehaztapena eta plangintza estrategikoa.
- Ikastetxeko pertsonal guztiaren arteko kohesioa.
- Gaitasun eta balio profesionalaren norbere onespren handiagoa.
- Ikastetxearen Idearioaren, Hezkuntza Proiektuaren eta eguneroko irakas-jardunaren arteko adostasun-maila handiagoa.

• Ikastetxearen prestigio hobe epe labur eta ertainean.

• Familien asebetetze handiagoa, ikastetxeko pertsonala kalitateaz eta ikasleen hobekuntzaz arduratzen dela ikusita.

• Hezitzaileen asebetetze handiagoa, euren lana baloratzen dela ziurtatzean.

ZAILTASUNAK

Prozesuan zehar, ondoko zailtasunak aurkitu ditugu:

- Nola lortu autoebaluazio eta prestakuntza prozesuan irakasleen parte esanguratsu batek gogoz esku hartzea?
- Irakasle gehien aldetik, honek dakarren aldaketarako erresistentzia pasiboak.
- Aldatzeko helburu horiei ofizialki aurreikusitakoa baino denbora gehiago emateko erresistentziak.
- Elkarlanean esperientziarik ez izatea.
- Langileriaren egonkortasun eza; ondorioz, ikasturtero hezitzaileak formatu behar izaten genituen.
- Ebaluatuar izateari beldurra.
- Estandarren gida ez zen Haur Hezkuntzako lehen zikloaren ezaugarrietara egokitzen, baina ziklo horretarako gida espezifiko bat sortzeko lanean parte hartu dugu.

Artikulu hau Kalitate Egitasmo Integratua (KEI) ezagutzera eman eta ikastetxeak kalitatearen kulturaren murgiltzeko baliagarria izatea espero dut. ¥



gaztezulo com
HI ETA HIRE MUNDUAK



PREZIO TXIKIA OPARI HANDIA



GUK ZURI ERE OPARI... aukeratu!

**20€ BAKARRIK
URTE OSORAKO**

**EGIN HARPIDETZA
943 457 250
harpidetza@gaztezulo.com**



**ESNE BELTZAREN
CD+DVDA**



**GATIBUREN
DISKO BERRIA**

Nola egin ebaluazio formatiboa eta konpartitua Gorputz-Hezkuntzan



Ebaluazioak Gorputz-Hezkuntzan ere bete beharko lukeen funtzioaz

Ebaluazio-hezitzaileak hainbat funtzio bete ditzake: diagnostikoa, formatiboa, sumatiboa, kalifikatzailea, hautatzailea (selektiboa), sailkatzailea, multzokatzailea, eta abar. Zoritxarrez, ohikoena, batez ere haren funtzio kalifikatzailea eta hautatzailea erabiltzea da; hau da, hezitzaile gehienek kalifikatzeko ebaluatzen dute soilik, hiru hilabetearen eta ikasturte bakoitzaren amaieran nota bat jartzeko. Ebaluazioaren funtzio kalifikatzaile horrek harreman zuzena du funtzio hautatzailearekin (gainditu eta hurrengo ikasturtera pasatuko zara edo suspenditu eta errepikatuko duzu... edo ikasketak utziko dituzu), eta, beraz, eskolarrakastarekin edo porrotarekin.

Gure ustez, hezitzaileek funtzio formatzaileagoa eta hezitzaileagoa beteko duen ebaluazio bati eskaini beharko liokete beren denbora eta energia gehiena. Ebaluazio-eredu horri *formatiboa* eta *partekatua* esaten diogu. Ebaluazio formatiboaz ari garenean, bere helburua ikaskuntza-irakaskuntzaren prozesuak hobetzen laguntzea duen ebaluazioaz ari gara, ikuspegi hirukoitzetik



Victor PASTOR

SEGOVIAKO IRAKASLE UNIBERTSITATEA-
VALLADOLIDEKO UNIBERTSITATEA

begiratuta:

a. Ikaslearen ikaskuntza-prozesuak hobetzea, ikasle bakoitzak gehiago eta hobeto ikas dezan.

b. Hezitzaileek haien jarduna egunegun, ikasturtez ikasturte, hobetu ahal izatea.

c. Ikasgeletan garatzen den ikaskuntza-irakaskuntzaren prozesuak hobetzea.

Ebaluazio partekatua kontzeptuaren diogunean, berriz, ikasleek ebaluazio-prozesuetan parte hartzeaz ari gara, hezitzaile-

ekin batera eta elkarlanean. Hori guztia, hainbat teknikaren eta tresnaren bidez bidera daiteke.

Gorputz-Hezkuntza ebaluatzeko erak hainbat ikasmaitan

Nire ustez, oinarria beti bera da: Zein ebaluazio mota egin nahi dut nik Gorputz-Hezkuntzako irakasle gisa? Zein motatako ebaluazioari emango diot lehentasuna eta garrantzia?

Gorputz-hezkuntzan egiten den ebaluatzeko eta kalifikatzeko eredu tradizionaletik begiratuta erantzuna erraza da: ikaslearen gaitasunen eta trebetasunen ebaluazio sumatiboa eta kalifikatzailea egitea. Eredu horrek, Gorputz-Hezkuntzan ebaluatzeko eta kalifikatzeko testen eta proben erabilera ekarri du. Egunerokoan, mota batekoak Lehen Hezkuntzan eta beste mota batekoak Bigarren Hezkuntzan. Horixe izan da Gorputz-Hezkuntzan ebaluatzeko eta kalifikatzeko era tradizionala azken hamarkadetan. Gure iritziz, ordea, akats pedagogiko larria da, eta badira hamar arrazoi nagusi hori gainditu eta gure ikasgaiaren erabiltzeari uzteko. Hainbat argitalpenetan gai horretan

sakonduta eta aukera formatiboagoak eskaini dituzte.

Ikuspuntu hezitzaileago batetik ere erantzuna erraza da, Gorputz-Hezkuntzan ebaluazio-formatiboari eta partekatuari lehentasuna eta garrantzia ematearen aukerari heltzea, hain zuzen. Lan egiten den ikasmailaren arabera, xede hori duten tresna zehatzak oso desberdinak izaten dira, noski. Baita beste hainbat aldagairen arabera ere: ikasturtea, ibilbidea, Gorputz-Hezkuntzan aurrez izandako bizipenak, maila akademikoak, eta abar. Ostera, teknika nagusiak beti dira erabilgarriak, erabili nahi diren etapa dena delarik ere: ebaluazio jarraitua, auto-ebaluazioa, ko-ebaluazioa, ebaluazio partekatua, feedbacka, ebaluazio dialogatua, behaketa, eta abar.

Azken bi hamarkadetan, pixkanaka, handituz joan da Gorputz-Hezkuntzako hezitzaileen kezka ebaluazio-eredu eta sistema formatzaileagoak eta hezitzaileagoak ezagutzeko eta garatzeko; egoera fisikoa edota gaitasun motriza neurtzeko testetan oinarritutako ebaluatzeko eta kalifikatzeko eredu tradizionala gainditu nahian. Zentzu horretan, ebaluazio-prozesuetan ikaslearen parte-hartzea erraztea izan da gehien garatu den eskuhartze aukera. Era berean, kasu askotan, eskuhartze hori, gelako eguneroko lanean estrategia didaktiko berriak erabiltzearekin lotuta joan da. Estrategia horiek, argi eta garbi, ikaslearen ikaskuntza handiagoa sustatzera bideratuak izan dira.

Pentsatzekoa denez, hezkuntzan egiten diren aldaketa guztietan bezala, aplikatzeko garaian gerta daitezkeen arazoaren aurrean zalantza, erresistentzia, eta zenbaitetan heldur egoeretatik pasatzen da; batez ere lehen aldietan, aldaketa errotik gertatzen denean. Horregatik, garrantzitsua da jakitea ideiak zenbat eta argiagoak izan, garatu nahi ditugun proposamenak zenbat eta hobeto antolatuak izan (prozesua, erabili beharreko teknikak eta tresnak), eta gerta daitezkeen balizko arazoaren aurrean erantzunak zenbat eta pentsatuagoak izan, orduan eta errazago gertatuko dela bidea.

Gorputz-Hezkuntzan ere diseinagarria eta aplikagarria ote da ebaluazio demokratikoa?

Erantzuna baiezkoa da: era berean,

baiezkoa da erantzuna edozein arlo kurrikular, gelari edo ikasmailari begira planteatzen badugu. Ebaluazio demokratiko kontzeptua ez dagokio soilik Gorputz-Hezkuntzari, kontzeptu orokorra da. Horregatik, irakasle eta hezitzaile askok jada jarri dute praktikan: irakasgai bateko espezialistak izan ala ez.

Ebaluazio demokratiko kontzeptua konplexua da. Abiapuntuan argi erakusten du ebaluazioaren jardunak alde teknikoak izateaz gain, inplikazio etiko indartsuak dituela ere. Izan ere, azaltzen dituen alde gehienak zerikusi zuzena dute boterearen erabilerarekin. Bide horretan, eta gure ikuspuntuaren arabera, ebaluazio demokratiko kontzeptua estuki lotuta dago ebaluazio-prozesuan ikaslearen parte-hartzearekin: haiekin eztabaidatuta ebaluazio-irizpideetatik hasi eta haien azken aplikaziora arte. Ebaluazio demokratikoaren prozesu batek izan beharko lituzkeen oinarritzko ezaguri zenbait hauek lirateke:

- Informazio-trukaketaren garrantzia.
- Ikaslearen parte-hartzea ebaluazio-prozesuan.
- Kurrikuluma negoziatzeko eta elkarrekin kudeatzeko estrategien garapena.
- Ikaslearen eta irakaslearen arteko komunikazio-, elkarrizketa-, eta errespetu-harremanen izaera.
- Autokalifikazio-prozesuaren bidean aurrera egitea, botere partekatu eta dialogatua gisa ulertua (Kalifikazio-dialogatua)
- Meta-ebaluazio bat gauzatzea: hurrengo aplikazioari begira ebaluazio-sistema eta prozesua hobetzeko egin den ebaluazioa.

Nire ustez, oinarria beti bera da: zein ebaluazio mota egin nahi dut nik Gorputz-Hezkuntzako irakasle gisa? Zein motatako ebaluazioari emango diot lehentasuna eta garrantzia?



Ebaluazio formatiboa eta partekatua alternatiba bat da eta aukerak eskaintzen ditu

Badira bi hamarkada ebaluazio formatiboa alternatiba bat dela, eta ebaluatzeko eta kalifikatzeko eredu tradizionalak ematen dituen emaitzak baino hobekiak ematen dituen eredu dela erakutsi du. Denbora horretan, Gorputz-Hezkuntzako irakasle askok praktikan jarri dituzte ebaluazio-sistema horiek, eta aurretik erabiltzen zizuten ereduak aldatuta, horiek dituzten abantailak ikusi dituzte. Ebaluazio formatiboak eta partekatuak Gorputz-Hezkuntzan irakaspen hobekiak sortzen dituztela erakusten dituzten nahikoa argitalpen eta egiaztapen badira, dagoeneko. Era berean, gelan ikaslearen parte-hartzea eta elkarbizitza hobetu dela erakusten dute.



Ebaluazio-demokratiko kontzeptua ez dagokio soilik Gorputz-Hezkuntzari, kontzeptu orokorra da. Horregatik, irakasle eta hezitzaile askok jada jarri dute praktikan.



Bestalde, badira nahikoa arrazoi pedagogiko ebaluazio-prozesuetan ikasleen parte-hartzea sustatu beharra argitan utzi dutenak: bai autoebaluazio gisa, bai koebaluazio edota ebaluazio partekatu gisa ere. Gure ustez, arrazoi pedagogiko azpimarregarrienak hauek dira:

1. Ebaluazio era horiek ikasleen irakaspena eta burutzen ari diren prozesu hezitzaileak hobetzeko ahalmen handia dute.
2. Azterketa kritikorako gaitasuna eta autokritika garatzen laguntzen dute.
3. Ikaslearen autonomiaren garapena sustatzen dute, ikasten ikastea, jende arduratsuen prestakuntza eta hezkuntza demokratiko baten garapena bultzatzen dute.
4. Gure hezkuntza-pentsakerarekin eta gelan irakaskuntza-ikaskuntzaren prozesuak garatzeko moduarekin koherentzia handiagoa duen proposamena da.

5. Gaur egungo kompetentzien arabera lan egiteko planteamenduetarekin gehiago lotzen da.

Hainbat hausnarketa eta ondorio Gorputz-Hezkuntzako ebaluazio kuantitatiboaren eta kualitatiboaren arteko eztabaidan ateratakoak

Nire ustez, faltsua da Gorputz-Hezkuntzako ebaluazio kuantitatiboaren eta ebaluazio kualitatiboaren gaineko eztabaida hori. Gakoa ez dago ebaluazio-teknikak edo metodo kualitatiboak edo kuantitatiboak erabiltzean. Benetan garrantzitsuak diren galderak hauek dira: “Zertarako ebaluatu nahi dut?”; eta, batez ere, “Norentzat ebaluatu nahi dut?”. Gakoa beti egongo da zertan ematen dugun denbora gehiago eta zertan egingo dugun gure ahalegina: gure ikasleak kalifikatzen soilik edota denbora eta ahalegin hori erabiliko dugun, batez ere, gure ikasleek gehiago eta hobeto ikas dezaten, eta guk, hezitzaile gisa, pixkanaka hobetu dezagun. Hori da benetako eztabaida garrantzitsua: kalifikatzeko ebaluatzen dugu edo irakaspenak hobetzeko ebaluatzen dugu?

Egindako azterketa eta izandako eskarmentu guztiaren ondorio gisa, jendea animatu nahiko genuke gure ikasgai hezitzaileagoak, demokratikoagoak, eta formatiboagoak diren ebaluazio-ereduetan sartzeko jarraitzeko. Gero eta irakasle gehiago dira egunerokoan ebaluazio demokratikoa erabiltzen dutenak (tradizioaren pisuak sortzen duen zailtasunaren eta erre-

sistentziaren ginetik). Ona da jakitea koherentzia hezitzaile eta kurrikular horren bilaketan ez gaudela bakarrik; badirela kide asko bidea egin dutenak, eta sortzen zaizkigun arazo konponbidean edo egoera eta testuinguru bakoitzari hobekien egokitzen zaion norabidean lagun diezaguketenak. Aurrera, bada, bideak merezi baitu: bai maila profesionalean eta baita maila pertsonalean ere. ¥

Bibliografía

- LÓPEZ PASTOR, VM. (2004) “*La participación del alumnado en los procesos evaluativos: la autoevaluación y la evaluación compartida en educación física*”. Eta FRAILE ARANDA, A. “*Didáctica de la Educación Física: una perspectiva crítica y transversal*”. Ed. Biblioteca Nueva. Madrid. (265-291).

- LÓPEZ, VM.; GONZÁLEZ, M.; BARBA, JJ. (2005) “*La participación del alumnado en la evaluación: la autoevaluación, la coevaluación y la evaluación compartida*”. Tandem. Didáctica de la Educación Física, nº 17. Barcelona. Graó.

- LÓPEZ PASTOR, VM. (Coord.) (2006) *La Evaluación en Educación Física. Revisión de los modelos tradicionales y planteamiento de una alternativa: la evaluación formativa y compartida*. Buenos Aires. Miño y Dávila.

- LÓPEZ PASTOR, VM.; BARBA MARTÍN, JJ.; VACAS SAN MIGUEL, R. A.; GONZALO ARRANZ, A. (2010) “*La evaluación en Educación Física y las actividades físicas cooperativas. ¿Somos coherentes? Las posibilidades de la evaluación formativa y compartida*”. Eta VELÁZQUEZ CALLADO, C. “*Aprendizaje cooperativo en Educación Física. Fundamentos y aplicaciones prácticas*”. Barcelona: INDE (225-255).

- LÓPEZ PASTOR, VM.; BARBA MARTÍN, JJ.; GALA VALVERDE, A. (2008) “*Posibilidades de la evaluación formativa y compartida en los procesos de resolución de conflictos en Educación Física*”. FRAILE ARANDA, A. “*La resolución de los conflictos en y a través de la Educación Física*”. Barcelona: Graó. (163-208).



argitalpenak



Gorila bat: zenbatzeko liburua

Anthony Browne

PAMIELA / KALANDRAKA

Batetik hamarrera zenbatuz, aurre-irakurle eta lehen irakurleentzako album hau zenbakietara eta primate-animalietara hurbiltzeko oso baliabide egokia da. Anthony Browne ingelesak zenbaki bakoitzari dagozkion beste animalia irudikatzen ditu marrazki errealista eta xehetasun handikoetan. Tximinoen unibertsaltasunaz baliatuz, ume guztiak haien sentimenduekin identifikatzea bilatzen du Brownek liburuan. •




Ehunzango dantzaria

Begoña Bilbao / Jose Luis Navarro

ELKAR

Mitxoleten zelaian animalia asko bizi ziren, eta elkarri laguntzen zioten lagun onak zirelako. Ehunzango aparta zen jaiak alaitzeko, oso dantzari trebea zelako. Egun batean, apo beldurgarriak bere jaian dantzan egiteko eskatu zion ehunzangoari. Esker onari buruzko ipuin bat osatu dute Begoña Bilbao eta Jose Luis Navarrok. Miren Agur Meabek itzuli du jatorrizko testua gaztelaniatik euskarara. •



Dinosaurioen historia eta istorioak

Alfonsito Mtz. Lizardukoa / Joan

Ignazio Abrisketa

GAIK

Antropologoak duela bi mende baino gehiago ari dira munduan zehar gora eta behera, fosilen bila. Pazientzia handiz, identifikatu, konparatu eta sailkatu egiten dituzte. Hutsegitez, hipotesi ausartez eta azpijokoz beterik dagoen haien ikerketa liluragarria oso historia berezia osatzen joaten da: bizitzaren historia eta dinosaurioak bizidunen munduaren jabe ziren unearnarena. •



Nur eta dortoken uhartera

Toti Martinez de Lezea / Juan Luis

Landa

EREIN

Bildumako zortzigarren atal honetan Nur eta bere lagunak (Yi-Yi, Yidan, Hidehoro eta Ander), Txina hegoaldeko Hainan uhartera joango dira. Han, dortoken ospitalea ezagutuko dute, eta abentura zirraragarriak biziko dituzte itsas-izarren, marrazoen, izurdeen, dordoken eta koloretako arrainen artean. •



Hara!

Miren Asiaín Lara

PAMIELA

Hara! albumarekin VI. Etxepare Saria irabazi du Miren Asiaín Lorak (Iruñea, 1988). Haur bat da protagonista, amonak igerilekuan jasotzen duena, etxera laguntzen, berarekin zinemara joaten, erosketetara eramaten... Aldi berean, mundu errearen eta ametsezkoaren arteko giltza du amonak eta haurri lagunduko dio batetik bestera igarotzen. •



Hegaztiak

Maria Julia Diaz Garrido / David

Daniel Alvarez Hernandez

PAMIELA / KALANDRAKA

Egun batean, hegaztiekin adarrez eta hostoez harantzago begiratu, eta bestelako bizimodu bat imajinatu zuten. Horrela, aro berri bat hasi zen. Eta inguratzen zuten guztiaren zergatia eta mamia azaldu zieten beren umei. Gizateriaren historiari buruzko gogoeta sakona da. •

... nora joango gara?

SANTXOTENA MUSEOAK Parke-Museoa eta Tailer-Museoa

Interpretazio Zentroa

Xabier Santxotena zuraren eskulangintzarekin aspalditik lotuta egon den familia baten semea da, eta gazte-gaztetatik eskulturak erakarrita sentitu da. 1970ean, Jorge Oteiza ezagutu zuen, eta harrezkero haren dizipulu esanguratsua izan da. Geroago, Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolan ikasi zuen, alderdi primitiboaren eta kulturalaren artean, alderdi naturalaren eta leunduaren artean. Bere lehenengo sorkuntza-lanetatik, obren sail edo multzoen formulari heldu dio. Poetei eta pilotari egindako omenaldiak, menhirrak, Gernika, Planetariuma, Basoak, Irrintzia. Pieza singular ugari egin ditu, hala nola iturriak, ur-jauziak, kanpoalderako eskulturak; altzairuz, zementuz edo brontzez eginak; instituzio edo museoentzat. Gaur egun, Artziniengan (Araba) duen tailerrean, eskultura eta poesian soilik dihardu.

Artearen eta naturaren arteko lotura

Artearen eta naturaren arteko lotura sentitzea, harizti eta pagadien artean. Bere antzinako pertsonaien mitologia sentitzea, zuhaitza eta zura sentitzea, eta baita haien sentsualtasunaren indar geldiezina ere.

Santxotenaren obra ukituzko magia da idazketa poetikoan, denbora esekiaren parentesia, kontenplaziorako eta geu askeago bihurtzeko. Horrekin batera baina, adierazpen mentala eta ulermen estetikoak ere bada, hainbat abiapuntutatik. Arrazionalismoa



da, espresionismoa, informalismoa, eta errealismo hutsean geratzen da islatuta.

Natura, artea eta adierazpena, pertsonaia kosmogonikoen, babesle panteisten eta elementu atmosferikoen bidez gartuak, lurraren eta zeruaren kosmosean, eguzkiaren eta ilargiaren nahiaren mende.

Tailer-Museoa

Tailer-Museoa ikuslearen eta artistaren arteko lotura da, obraren jatorrirainoko bidaia didaktikoa. Bolumenaren eta formaren laborategian hasten da bidaia, eta abstrakzio sinbolikoan amaitzen. Tailer-Museo bat mundu benetakoa da, artistak baso bihurtzen duen “kosmos” baten baitan, lurrea ikuntza bat da, lurrean landatua, beneta-


ko egoera baten sinbolismo abstraktua, harmoniaren aldeko apustua... eta, batez ere, gure bizilekua den munduaren bakearen aldeko apustua: Gernika, Sarajevo, Kosovo... Bizitza eta heriotza, natura-muinaren ikuspegi bat. Panteismo bat da, kosmogonia bat? Kirolaria? Naturala? Planetarioa?





Edo besterik gabe da eguneroko lantokia, sorkuntzarekin harreman zuzena, espazioa eta obra ulertzeko modua? Tailer-Museoa bat gaurko arteak duen lekua da, iraganean sendo sustraitutakoa kasu honetan, eta bere edukiek ikus-entzunezko baten bitartez eskainiko digute artea eta espazioa sentitzeko eta ulertzeko aukera.

Parke-Museoa

Arizkongo (Nafarroa) Bozate auzoko Museo-Parkeak natura eta artea uztartu eta agoteak omendu nahi ditu. Leku hesi-gabea da noranzko guztietan, eta oso irisgarritasun handikoa. Obrak berak gidatutako ibilaldian bisitariak eskuz ukitu ahal du eskulturrek erakusten duten sentsualitatea. 

SANTXOTENA MUSEOAK

Santxotena Parke-Museoa
Bozate-Arizkun (Nafarroa)

Santxotena Tailer-Museoa
Artziniega (Araba)

Telefonoak: 945 396 664 / 605 717 857
e-maila: tlafagua@santxotena.org
www.santxotena.org



MUSEOAREN ORDUTEGIA

Bozate-Arizkun (Nafarroa)

Larunbata
11:00?14:00 * 16:00?19:00

Igandea
11:00?14:00

Artziniega (Araba)

Larunbata
11:00?13:30 * 16:00?19:00

Igandea
11:00?14:00

Ordutegi horietatik kanpoko bisitak egiteko, aldeztu aurretik hitz erreserbatzea komeni da.





Ruben SANCHEZ

Bertsolaria

Pixka bat etsigarria da Gasteizen apaiz eta serora ikastetxeetara umeak bidaltzeko dagoen ohitura santua. Gu halako batera joan ginen, pentsa 1.500 ume/gaztetxo ginen!

Jakina, oroitzapen onak ditut! Gaur egun gure lagun koadrilako gehienok eskola horretatik atera ginen, baina gauza bat da bizitako une ederrak, pasarte mitikoak, egindako lagunak, haurtzaroa bera, zenbait irakasle jator... eta besterik da eskola hura!

Beste sasoi batzuk ziren, ulertu behar da... Tira, gauza batzuk agian bai, beste batzuk ez ziren/dira ulergarri. Abiapuntua bera... zer nahi duzue ba? Eskola pribatu bat, kristaua, gizartea

Handira paso, txikia hordago!

poltsikoaren arabera mailakatzen zuena, klasista, baztertzaila...

Horrela esanda ematen du infernua zela! Baina egiazki ume batzuentzat latza izan zen: arrakasta lortzen ez zuen umearentzat, esaterako: kirolelan oso ona ez zelako, edo halako markadun zapatak/prakak/kamisetak janzten ez zizuelako, edo vespino bat ez zuelako... Ume baztertuak ez ziren bat edo bi, gela bakoitzeko laurdena baizik.

Gainera, irakasle batzuk ere nahiko jota zeuden eta beren ospina umeengana zuzentzen zuten, batzuetan bortizki.

Besterik? Bai. Erdaraz ikasi genuen eta euskara gaizki baino gaizkiago tratatzen zuten, euskarako irakasleak ez zuen ezta 'egunon!' ere esaten, eta latinekoak latina ikastea euskara baino garrantzitsuagoa zela zioskun.

Duela urte batzuk eskola famatu egin zen, han ibili zen apaiz bat pederastiagatik salatu zutelako.

Hala eta guztiz ere, gaur egun ere 1.500 ume izango dira eskola hartan. Etsigarria zinez.

Bide batez, ez naiz hain zaharra, 80-90. hamarkadez ari naiz.

Egun guraso ere bagara, Gasteizko alde zaharreko eskola publikoan. Ezagutu nuen handi haren aldean txikitxo. Ezagutu nuen erdarazko haren aldean —gure aurretik busti ziren guraso batzuei esker— D ereduakoa. Ezagutu nuen *mito-riano* haren aldean kolore eta kultur ezberdinetakoa, alde zaharrean bizi garenon ispilu: jatorri arabiarrekoak, amazigh-ak, sahararrak, ijitoak, latinoamerikarrak, euskaldunak, beste herri batzuetakoak...

Eskolaren bidez auzoa elkarlotzen ari da, gurasoek umeen aitzakian elkar ezagutzen dugu, eta guretzat 'behartu' den hori, umeentzat gauza naturala da. Hurrengo belaunaldi horren ortzemuga koloretsuagoa izango da, dudarik gabe.

Gasteizen modu miserablean ari dira etorkinak erabiltzen A eredu salbatzeko. Gure eskolak orde, frogatzen du denon integrazioa eta desguettizazioa lortzea jendarteak gehien eskatzen duen eruditik behar duela. Euskaratik eta euskaraz.

“Rifikinen teoriaren arabera “lanaren amaierako” zibilizazioan baldin bagaude, lanik gabeko gizarte bati ere egokitu beharko zaio hezkuntza. Beraz, paradoxikoa bada ere, gure gizarteak lanerako prestakuntza eskaintzen duen bitartean, aldi berean, aisialdirako eta lanik gabeko gizartearentzako hezkuntza ere eskaini beharko du”

Mikel Urkola



ELHUYAR
edizioak

TOP SECRET

4

Simon Singh

KODEEN LIBURUA

Kodeen eta kodeak hausteko sistemen historia sekretua

Simon Singh

KODEEN LIBURUA. Kodeen eta kodeak hausteko sistemen historia sekretua



ELHUYAR
edizioak



izpiak

*"Enkriptazioa gure
inguruko gauza
guztietau dago"*
Simon Singh

Hura babesteko modua informazioa kodetzea da eta aspaldi hasi ginen kontu honekin... Asmatu zituzten kodeak, baina hauek hausten saiatu ziren eta orduan kode hobek askatu zituzten, baina kode horiek ere hautsi zituzten... Gaur egun, informazioaren garai honetan, informazioa babesteko inoiz baino gaurkotasan gehiago du informazioa kodetzeak.



Z izpiak

**KODEEN LIBURUA.
KODEEN ETA KODEAK
HAUSTEKO SISTEMEN
HISTORIA SEKRETUA**

Egilea: SIMON SINGH

THE CODE Book liburuaren euskarazko itzulpena.

www.elhuyar.org/edizioak



PiRRix, PoRRox eta MaRiNoTots



8€

**Piraten Olinpiadak
Txirlabeltzaren uhartean**
Piratak bildumaren ipuin berria



15€

Sentitu, pentsatu, ekin!
CD sinfonikoa
17 ipuintxo eta 17 abestirekin



17€

Zazpikolorua DVDa
ikusbizua zuzenean,
erreportajeak, partiturak...



6€

Margotzeko 1
24 marrazki + 6 kareta



Maite Zaitut!
Plaza ipuinak
bilduma berriaren
lehen ipuina



7€



14€

Puzleak
3 puzlez osatuta dago
kaxa bakoitza

25 URTEZ...

**Sentitu, Pentsatu,
ekin!**



eskaerak

www.katxiporreta.com

Katxiporreta
KOOP.E.

Oria etorbidea, 10
Brunet Eraikina 5, E-4
20160 LASARTE-ORIA
Tel.: 943 368 404